Euskal herrian ikastetxe bakoitzak zikloaren guztizko ordutegiaren %15 (kasu honetan 300 ordu) zikloaren modulu desberdinen artean komenigarritzat jotzen duen moduan banatzeko aukera duenez gero, modulu horiek denboran eta antolaketan banatzeko hipotesi desberdinen artean, hemen proposatzen dena ondorengo tauletan garatzen dena da:

#### LEHEN IKASTURTEA

| MODULUA ZK. | IZENA                                | ORDU-KOPURUA |
|-------------|--------------------------------------|--------------|
| 1           | Igeltserotzako lanen antolamendua.   | 288          |
| 6           | Segurtasuna eraikuntzan.             | 128          |
| 5           | Presiorik gabeko eroanbide linealak. | 170          |
| <b>2</b>    | <b>Fabrika-obrak.</b>                | <b>374</b>   |

#### BIGARREN IKASTURTEA

| MODULUA ZK. | IZENA                                                          | ORDU-KOPURUA |
|-------------|----------------------------------------------------------------|--------------|
| 9           | Kalitatea eta etengabeko hobekuntza.                           | 40           |
| 7           | Administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea enpresa txikietan. | 100          |
| 8           | Lan-prestakuntza eta -orientabidea.                            | 60           |
| 4           | Estalki jarrai konglomeratuak.                                 | 242          |
| 3           | Estalkiak eta iragazkaizteak.                                  | 198          |
| 10          | Lantokiko prestakuntza.                                        | 400          |

Hemen proposatzen den moduluen denboralizazioa eta banaketa ikastetxe bakoitzean alda daiteke, bere curriculum- eta antolaketa-proiektuaren arabera.

Unitate didaktiko hau lehen ikasturtean kokatuta dago "Fabrika-obrak" izeneko 2. moduluaren barruan, bertan garatzen diren prozedurazko edukien aplikazio egokiena ahalbidetzen duelako (egileen ustez), baina beste modulu baten barruan barne har daiteke partez edo osorik, arlo honetako ziklo batean edo bestean egonik ere, bidezko diren egokitzapenekin.

### 3.2.2. Moduluen antolamendua eta orduen arabera sekuentziak

Gure hipotesiarekin jarraituz, modulu desberdinen eta unitate didaktikoaren antolaketa eta ordu-banaketa eta modulu horretan egiten den bere sekuentziak gaineratzen diren tauletan ikus daiteke, eta bertan pentsatzen da ikasturte baten iraupena, egunez, 32 astekoa dela, hauek 30, 31 edo 32 orduko asteko ordutegietan bana daitezkeelarik, ikastetxearen eta irakasle-taldearen ahalmen pedagogiko eta antolaketazkoen arabera.



| LEHENENGO IKASTURTEAREN ASTEAK |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    | 960 ORDU/ 1. IKASTURTEA (2000 ordu/zikloko) |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
|--------------------------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|----|----|----|----|----|---------------------------------------------|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
|                                | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17                                          | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | 32 |
| 1                              |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 2                              |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 3                              |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 4                              |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 5                              |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 6                              |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 7                              |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 8                              |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 9                              |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 10                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 11                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 12                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 13                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 14                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 15                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 16                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 17                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 18                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 19                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 20                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 21                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 22                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 23                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 24                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 25                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 26                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 27                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 28                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 29                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 30                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |    |    |    |                                             |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |

Eraikuntza eta ingurugiroa unitate didaktikoaren garapena (17 ordu).

| BIGARREN IKASTURTEAREN ASTEAK |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    | 1.040 ORDU 2. IKASTURTEA (2000 ordu/zikloko) |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
|-------------------------------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|----|----|----------------------------------------------|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
|                               | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14                                           | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | 32 |
| 1                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 2                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 3                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 4                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 5                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 6                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 7                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 8                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 9                             |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 10                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 11                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 12                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 13                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 14                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 15                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 16                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 17                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 18                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 19                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 20                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 21                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 22                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 23                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 24                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 25                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 26                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 27                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 28                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 29                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 30                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 31                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 32                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 33                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
| 34                            |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |    |    |    |                                              |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |

### 3.3. Unitate didaktikoak moduluaren barruan duen kokapena

#### 3.3.1. Moduluaren Unitate Didaktikoak

Zikloaren OCDan moduluaren edukiak eduki-multzotan antolatuta adierazten dira, baina garrantzitsua da adieraztea zatiketa hau ez dela erreferentziatzat hartu behar eduki horiek moduluan zehar sekuentziatu eta antolatzeko, eta era berean ez ditu berauek irakasterakoan garatu behar diren modu, era edo metodologia baldintzatu behar.

Era berean ez da nahastu behar "Eduki-multzoa" eta "Unitate Didaktikoa", azken honek bere garapenerako eduki-multzo baten edo askoren zati bat edo osotasuna har dezakeelako.

"Fabrika-obrak" modulurako proposatzen diren unitate didaktikoak, non eduki-multzoak lantzen diren, ondorengo hauek dira:

| UNITATE DIDAKTIKOAREN ZK. | IZENA                                                               | ORDU-KOPURUA |
|---------------------------|---------------------------------------------------------------------|--------------|
| 1                         | Moduluaren aurkezpena                                               | 1            |
| 2                         | Hormak eta pilareak totxo arruntekin eraikitzea                     | 90           |
| 3                         | Hormak eta pilareak bistako adreiluekin eraikitzea                  | 38           |
| 4                         | Arkuak, ateburuak eta leihoburuak eraikitzea                        | 38           |
| 5                         | Gangak eta kupulak eraikitzea                                       | 20           |
| 6                         | Hormak zementuzko bloke aurrefabrikatuekin eraikitzea               | 44           |
| <b>7</b>                  | <b>Eraikuntza eta ingurugiroa</b>                                   | <b>17</b>    |
| 8                         | Fabrika-obren, aurrefabrikatuen edo "in situ"-en erremateak oro har | 10           |
| 9                         | Harri-horma arruntak eraikitzea...                                  | 4            |
| 10                        | Tabike eta tabikoi zuzenak eraikitzea                               | 19           |
| 11                        | Tabike eta tabikoi irregularrak eraikitzea                          | 19           |
| 12                        | Tabikeak material desberdinetako panelekin eraikitzea               | 19           |
| 13                        | Eskailerak eta forjak eraikitzea                                    | 55           |
| <b>GUZTIRA</b>            |                                                                     | <b>374</b>   |

Unitate didaktiko hauek, modulu honi dagozkion edukiak oinarritzat hartzeaz gain, zenbait kasutan lehendik eman diren moduluetakoa edo aldi berean ematen ari diren moduluetakoa kontuan izan beharko dituzte; honek zera eskatzen du, irakasle-taldeko kideen artean koordinazioa erabatekoa izatea, aurkakoa ere gerta daitekeelako, hau da, UD honetan landutako edukiak beste modulu batzuk irakasterako beharrezkoak izatea.

Zentzu honetan, adierazi behar da komenigarria dela 1. modulu "Igeltserotzako lanen antolamendua" hau baino lehen lantzea, bertan aztertzen diren lanei eta eraikuntzei dagokienez behintzat.

Era berean, erlazio garrantzitsua dago modulu honetan ere aplikatzen diren segurtasun eta higieneko gaiei buruzko edukien eta 6. moduluan "Segurtasuna eraikuntzan" barne hartzen diren gai horien berariazko edukien artean.

Zirkunstantzia hori kontuan izan beharko da hala eduki komunak dituzten modulu bateko eta besteke unitate didaktikoak diseinatzeko garaian, nola lanbide-modulu honen garapen osoan zehar.

Bestalde, azpimarratu behar da modulu honetako edukien zati handi batek gainontzeko lanbide-moduluentzat interes orokorreko jakintzak inplikatzeko dituztela (batez ere eraikuntzako prozesuen, sekuentzien eta baliabideen ezagupenari buruzkoak, bai eta bertan barne hartzen diren ingurugiroari buruzko ezagupenei buruzkoak ere), eta beraz komenigarria izango da hasieran lantzea, zikloaren gainontzeko moduluak baino lehen edo gutxienez hauekin aldi berean.

I  
B  
I  
L  
B  
I  
D  
E  
D  
I  
D  
A  
K  
T  
I  
K  
O  
A

| EDUKI<br>ANTOLATZAILEA                                                                                     | ETAPAK                                                    | FASEAK<br>(U.D.)                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | (U.D.)AREN ARDATZ<br>EGITURATZAILEA                                                                                        |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Ingurugiroa<br>errespetatzen<br>duten fabrika-obrak<br>eraikitzeke teknikak<br>aztertzea eta<br>aplikatzea | <b>1. FABRIKA-ITXIERAK<br/>ERAIKITZEA</b>                 | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hormak eta pilareak totxo arruntekin eraikitzea.</li> <li>2. Harri-horma arruntak eraikitzea.</li> <li>3. Hormak eta pilareak bistako adreiluekin eraikitzea, aparailu eta lodiera desberdinez.</li> <li>4. Hormak zementuzko blokeekin eraikitzea.</li> </ol>          | <p>Aztertzea/<br/>Plangintza</p> <p>Zuintzea</p> <p>Identifikatzea-<br/>Segurtasuna</p> <p>Burutzea</p> <p>Egiaztatzea</p> |
|                                                                                                            | <b>2. FABRIKA-PARTI-<br/>ZIOAK ERAIKITZEA</b>             | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Tabike eta tabikoi zuzenak alde bateko edo biko adreilu hutsekin eraikitzea.</li> <li>2. Tabike eta tabikoi makurrak material desberdinekin eraikitzea.</li> <li>3. Tabikeak hormigoi, igeltsu edo zeramikazko panelekin eraikitzea.</li> </ol>                         |                                                                                                                            |
|                                                                                                            | <b>3. OBRAKO<br/>ELEMENTU<br/>BEREZIAK<br/>ERAIKITZEA</b> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Arkuak, ateburuak eta leihoburuak eraikitzea.</li> <li>2. Gangak eta kupulak eraikitzea.</li> <li>3. Eskailerak eta forjak eraikitzea.</li> <li>4. Fabrika-obren, aurrefabrikatuen edo "in situ"-en erremateak oro har (inpostak, barlasaiak, gailurrak...).</li> </ol> |                                                                                                                            |
|                                                                                                            | <b>4. ERAIKUNTZA<br/>ETA<br/>INGURUGIROA</b>              | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ingurugiro-kudeaketa.</li> <li>2. Araudia, organismoak eta prozedurak.</li> <li>3. Kudeaketa eta prozeduren eskuliburua.</li> </ol>                                                                                                                                     |                                                                                                                            |

## 3.3.2. Moduluaren orientabide didaktikoak eta ebaluaziorakoak

**IBILBIDE DIDAKTIKOA** <sup>(1)</sup>

Modulu hau antolatu eta egituratzerakoan, edukietan adierazitako prozedurek irakasteko prozesua zuzendu dezaten proposatzen da. Horretarako komenigarritzat jo da prozedurazko izaera duen eduki antolatzaile bat ezartzea: “Ingurugiroa errespetatzen duten fabrika–obrak eraikitze teknikak aztertzea eta aplikatzea”.

Eduki antolatzaile handi honek moduluan parte hartzen duten prozedura desberdinak lotzea eta irakatsi eta ikasteko eta ebaluaziorako jarduerak programatzeko aukera eskainiko duen oinarritzko egitura eratzea ahalbidetzen du, berorietan ezarrita dauden gainontzeko edukiak, hau da, kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak, sartuz.

Eskema–taulak aipatu eduki antolatzailean inspiratzen den ibilbide didaktiko posible bat aurkezten du, eta honek inplikaturik dauden jakintzak lortzeko aukera handiak eskaintzen dizkigu eta lortu nahi diren ikaskuntza eta gaitasunen aldeko sekuentzia ahalbidetzen du.

Eduki antolatzailea kontuan izanik modulu hau lau etapatan zatitu da, dagokion eskeman ikus daitekeen bezala. Hona hemen ezarritako lau etapak:

- “Fabrika–itxierak eraikitzea”.
- “Fabrika–partizioak eraikitzea”.
- “Obrako elementu bereziak eraikitzea”.
- “Eraikuntza eta ingurugiroa”.

**1. ETAPA:** “Fabrika–itxierak eraikitzea”

Lehen etapa honek prozedurazko izaera nabarmena du, eta arrazoi horregatik itxieren burutzapenak beste edozein kontsideraziorikiko lehentasuna du.

Etapak lau fasez osatuta dago, eta horietako bakoitzak edukien “pakete” homogeen bat eskainiko du xedetzat hartutako gaitasuna ikasleak lor dezan, etapa honetan gaitasun hori horma–mota desberdinak hainbat materialekin eraikitzea izanik.

- Lehen fasea “*Hormak eta pilareak totxo arruntekin eraikitzearen*” inguruan garatzen da, eta edukien tratamendua ia soilik praktikan oinarrituko da, eta ez hainbeste teoriarik.
- Bigarren fasea “*Harri–horma arruntak eraikitzearen*” inguruan garatzen da.
- Hirugarren fasea “*Aparailu eta lodiera desberdinetako bistako adreiluzko hormak eta pilareak*” bezalako fabrika–obrei dagozkien beste unitate berezi batzuen plangintzaren eta burutzapenaren inguruan egituratuta dago.
- Azkenik, laugarren fasean “*Hormak zementuzko blokeekin eraikitzeari*” buruzko guztia barne hartzen da.

Eraikuntza–mota jakin bati buruzko fase bakoitzerako ezarritako edukiak garatzen direnean, ikasleek prozesu didaktiko zehatz bati jarraitzea planteatzen da. Hori da, hain zuzen ere, unitate didaktikoen ardatz egituratzaileek adierazi nahi dutena: fase jakin bateko unitate didaktikoetan lantzeko asmoz aukeratu diren edukiak ardatz egituratzaile horietan adierazitako prozeduren arabera lantzea.

Etapak honetarako, gainerakoetarako bezala, dagozkion unitate didaktikoen ardatz egituratzaileak ondokoa izatea proposatzen da: aztertzea/plangintza, zuintzea, identifikatzea–segurtasuna, burutzea eta egiaztatzea.

<sup>1</sup> Hurrengo orrialdeko eskeman, ibilbide didaktikoa osatzen duten eta atal honetan programatu ahal izateko aurkezten eta garatzen diren elementu nagusiak sintetizatuak azaltzen dira.

Etapari honi destinatutako denbora moduluaren guztizkoaren %45 izango da.

## 2. ETAPA: "Fabrika-partizioak eraikitzea"

Aurrekorako egin diren antzeko gogoetak egin daitezke, oinarritzat hartutako xedea aldatuz; hau da, partizioak hormen orde. Hona hemen etapa honetarako ezarri diren hiru faseak:

- Lehen fasean "Tabike eta tabikoi makurrak alde bateko edo biko adreilu hutsekin eraikitzeari" buruzko edukiak landuko dira.
- Bigarren faseak "Tabike eta tabikoi makurrak material desberdinekin eraikitzea" lantzen du.
- Hirugarren eta azken fasean "Tabikeak hormigoi, igeltsu edo zeramikazko panelekin eraikitzeari" buruzko guztia barne hartzen da.

Etapari honetako fase desberdinetan zehar egingo den ibilbideko unitate didaktikoen ardatz egituratzailea aurreko bera izango da.

Programatzen diren unitate didaktiko desberdinen konplexutasuna irizpide desberdinen arabera ezarri ahal izango da. Erabilitako prozeduren eta tekniken gero eta konplexutasun handiagoaren ondorioz gehitu ahal izango da zailtasuna, eraiki beharreko elementuen eta unitateen zailtasunagatik, edo kontuan hartuko den beste edozein aldagairengatik.

Etapari honi destinatutako denbora moduluaren guztizkoaren %15 izango da.

## 3. ETAPA: "Obrako elementu bereziak eraikitzea"

"Elementu berezien" eraikuntza horiek lau fase desberdinetan egituratzen dira, eta horietako bakoitzean ondoko edukiak landu eta garatzen dira:

- "Arkuak, ateburuak eta leihoburuak eraikitzea", lehen faserako,
- "Gangak eta kupulak eraikitzea", bigarren faserako,
- "Eskailerak eta forjak eraikitzea", hirugarren faserako,
- "Fabrika-obren, aurrefabrikatuen eta "in situ"-en erremateak oro har (inpostak, barlasaiak, gailurrak...)", etaparen laugarren eta azken faserako.

Proposatzen den sekuentziazioak ez du zertan aukeratutakoa izan. Proposamen bat da, ibilbide didaktiko guztia bezalaxe. Eduki guztiak lantzeko modu bat da, ikasleentzako zentzua eta esanguratasuna izan dezaten, eta betiere produkzio-prozesuei eta produktu edo obra-unitateei lotuta ager daitezen, hala prestakuntza-koherentzia eta amaierako gaitasunen lorpen harmonikoa eta integratua bultzatuz, lortu nahi den lanbide-gaitasuna lortzearen.

Hirugarren etapa honi destinatutako denbora moduluaren guztizkoaren %35 izango da.

## 4. ETAPA: "Eraikuntza eta ingurugiroa"

Laugarren etapa hau, azkena izan arren, ikasturte osoan zehar garatuko da, barne hartuta dagoen heziketa-zikloaren bi ikasturteetan zehar bere aplikazioa ahalbidetuz, ikasleengan ingurugiroari loturiko kontzientziazioa lortu nahi delako, jarrerazko alderdiak bereziki azpimarratuz, ikasgelan irakatsi beharreko kontzeptuzko edukiak bigarren plano batean utziz, ikasgelatik kanpoko lana bultzatuz, kontzientziazio hau lantokian aplikazio praktikoaren bidez adieraz dadin lortzeko.

Etapari hau hiru fasetan zatitu da:

- Lehen fasea: "Ingurugiro-kudeaketa". Bertan, eraispenerako, lehengaien erauzpenerako eta lehengaien transformaziorako prozesuekin erlazionatutako suposizio praktiko batzuen azterketa, analisi eta balorazioan oinarrituz, ingurugiroari buruzko kontzeptuak lantzen dira.

- **Bigarren fasea:** *“Araudia. organismoak eta prozedurak”*. Adierazitako alderdiak azaletik aztertzen ditu, hauek lanbidearekin erlazionatuz.
- **Hirugarren fasea:** *“Kudeaketa eta prozeduren eskuliburua”*. Adierazitako alderdiak azaletik aztertzen ditu, eskuliburuaren eta erabilpen-fitxen lantzea barne hartuz.

Etaparen honetarako ardatz egituratzailea, gainontzekoetarako bezalaxe, ondokoa izatea proposatzen da: Aztertzeta/Plangintza, Zuintzea, Segurtasuna Identifikatzea–Erabiltzea, Burutzea eta Egiatzea.

Etaparen honi destinatutako denbora moduluaren guztizkoaren %5 izango da.

Azken etapa honetako hirugarren fase hau *“Eraikuntza eta ingurugiroa”* izeneko unitate didaktiko batean barne hartzen da oso–osorik.

### JARRAIBIDE METODOLOGIKOAK

Ondoko norabideei jarraitzea gomendatzen da:

- Orokorrean, unitate didaktikoak osatuko dituzten irakatsi eta ikasteko jarduerak eta ebaluazio–jarduerak zehazteko, dagoeneko behin eta berriz aipatutako ardatz egituratzaileak kontuan hartu behar dira, hain zuzen ere proposatutako ibilbidearen fase bakoitzean ezarritakoak eta horietan barne hartuko diren unitate didaktikoei dagozkienak. Kasu gehienetan, ardatz horiek prozedurazko izaera soila dute eta adierazitako jardueraren horien inspirazio–iturri izan behar dute. Ikasleak ariketa praktikoa desberdinak egingo ditu (suposizioetan edo, ahal izanez gero edo horrelakorik gomendatzen bada, errealitatean oinarrituak). Jardueraren horietan, hasteko, unitate didaktikoan programatutako edukiei dagozkien prozedurak landuko dira. Betiere, eduki horiekin lotuta, komenigarritzat jotzen diren eduki kontzeptualak (gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak) agertu behar dira, elkarren arteko erlazio logikoa azpimarratuz. Gainera, prozedurei eta kontzeptuei buruz programatutako jakintzen inguruko jarrera profesionalak landuko dira.

Unitate didaktikoetan programatu diren jardueren lotutako lanbide–jardunaren suposizioek konplexutasun handiagoa eta ikaslearen aldetik autonomia handiagoa eskatu ahal, behar izango diren kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak zabaldu eta gehituko dira.

- Kontzeptuzko egitura soila duen unitate didaktikoren bat ezartzen bada (eta hori kasu jakin batzuetan gomendatutako ibilbidea deskribatzerakoan argi eta garbi zehaztu da) haxe gomendatzen da: edukiak konplexutasun–mailaren arabera sekuentziatuta antolatzea, eta, ahal den neurrian, ikasleak prozesuetan parte hartzera bultzatzeko dituzten metodoak erabiltzea. Hau da, ez da komeni azalpen–metodoak gehiegi erabiltzea, ikaslearen pasibotasuna saihestearren, alegia.
- Modulu honetan, hasierako unitate didaktiko bat barne hartu da, bi asmorekin: ikaslearen moduluaren panorama didaktikoa aurkeztea eta motibazioa piztea. Lehenengoak bigarrena dakar berekin. Programatutako edukiak eta produkzio–ingurune errealekin duten erlazioa azalduz, hau da, horien lanbide–baliagarritasuna nabarmentzean, irakatsi eta ikasteko prozesuan parte hartzen dutenen ezinbesteko motibazioa lortu behar da.

Espazio hori, gainera, baliagarria izan daiteke ikasleek aukeratutako lanbideari buruz aldeztu aurretik duten ideia ezagutzeko, zikloko tituluari lotuta egon daitezkeen lanpostuei buruz dituzten iguripenak identifikatzeko, etorkizuneko betebeharrak eta eskubideei buruz egin dituzten interpretazioak baloratzeko eta abar. Hasiera batean, informazio horrek dauden irizpideak kontrastatzea ahalbidetuko du. Euskarri metodologiko gisa, “sektoreko hitzarmen kolektiboaren” adibide bat erabili ahal izango da, eta adibide horretan oinarrituta eztabaida sortarazi.

Hasierako unitate didaktikoan, irakasleak moduluaren funtsezko alderdien berri eman behar die ikasleei, hau da: jarduerak, edukiak, programazio sekuentziala, asmo didaktikoak eta behin–betiko helburuak; horrez gain, aurreikusitako ebaluazio–sistemaren berri eman behar die. Adierazitako aurkezpen horren ondoren, taldean iritziak adieraztea komeni da.

Irakasleak esku hartzeko aukera izango du prozesua “gidatzeko”, ikasleek ezarri zaizkien jakintzen behar praktikoa eta, beraz, baliagarritasuna “ezagutu” dezaten.

- Egoera bakoitzerako proposatu diren jakintzen inguruan programatutako sekuentziari buruzko informazio zehatza eskuratzeak garrantzi berezia du. Horrela lortuko baita prozesuan zehar ikaslea, une oro, lortutako denborazko posizioan “kokatzeko” eta egin duen aurrerapena antzemateko gai izatea. Horrela, gainera, motibazioa mantentzea eta ikaskuntzaren eraginkortasuna areagotzea lortu ahal izango da.

Era berean, betiere komeni da unitate didaktiko arrunt bakoitzaren aurkezpenean antzekoak baina berariazkoagoak izango diren informazio- eta motibazio-helburuak balortzea. Horretarako, irakasleak baliabide metodologiko desberdinen artean aukeratu ahal izango du. Gomendatzen den bat haxe da: eztabaidaren oinarri gisa kasu praktiko bat aurkeztea, ahal bada behintzat sinplea, ikaslea horri buruz egokia iruditzen zaion guztia adieraztera bultzatuz. Hala, eztabaida txiki bat sortaraziko da, eta eztabaida hori ondo gidatuz gero, baliagarria izango da helburutzat hartutako jarrera ikaslearengan antzemateko eta erabili ahal izango diren aurretiko ezagutzak zehaztu eta, beharrezkoa izanez gero, programazioaren egokitzapena erabakitzeke.

- Unitate didaktiko guztietan funtsezkoa izango da programatutako edukiak eta jakintzak sektoreko eremuaren errealitatera egokitzea, eduki eta jakintza horiek sektore horri dagozkion jardueren eta funtzioen berezitasunetara egokitzearren. Azken finean, gertuko produkzio-inguruneke lan-prozesuen berezitasunak eta dagozkien ezaugarri jakin batzuk nahitaez kontuan hartu beharko baitira.
- Gomendatzen den ibilbidearen aldi jakin batzuetan, dagozkion faseak adieraztean, unitate didaktikoetako jardueren inspirazio-iturritzat burutzapen jakin batzuk (simulatuak izan ala ez) barne hartzea komeni dela esan dugu. Betiere, lan-zirkunstantzia errealetan erabili ohi den dokumentazio teknikoa ikasleari eskaintzea gomendatzen da. Gainera, eskura dauden erremintak eta bestelako baliabideak, ahal den neurrian, lanbide-burutzapen horiei dagozkien produkzio-baldintzetan erabilitakoen antzekoak izatea lortu behar da. Hala, ikaskuntzaren prozesua esanguratsuagoa eta, beraz, eraginkorragoa izatea lortu ahal izango da.
- Unitate didaktiko jakin batzuk garatzeko (batez ere prozedurazko izaera nabarmena dutenak, garrantzi handiko eta lanbidean inplikaturako jakintzak biltzen dituztenak), ikasleak taldetan banatzea komeni da, ahal bada talde txikitan, programatutako jardueri ekiteko garaian. Hala, baliabideak errazago egokitu, lankidetzat bultzatu eta taldearen eta norbanakoaren ebaluazioa ahalbidetuko da.
- Unitate didaktiko batzuk lantzeko “Proiektuaren Metodoa” oso egokia izan daitekeen arren, beste unitate didaktiko batzuetarako “espero ez den emaitzaren Metodoa” gomendatzen da (biak oso ezagunak izanik irakasleen artean); beste unitate didaktiko batzuen kasuan ez dago hain argi zein izan daitekeen metodologiarik onena eta, beraz, zirkunstantzia bakoitzean irakasleak aukeratu beharko du egokiena iruditzen zaiona.
- Azkenik, gomendatzen den ibilbidearen azkeneko faseak duen garrantzia kontuan hartu behar da, hain zuzen ere sekuentzia horretan programatutako den unitate didaktikoa bere baitan hartuko duena. Amaierako zirkunstantzia honetan, adierazitako fasearen berariazko helburua moduluari dagozkion hiru eremuetako jakintzak osorik hartuta laburbiltzea eta behin-betiko eta koherentziaz integratzea da, ikasleak jakintza horietatik eskatu ahal izango zaizkion esanguratasun-mailak lortzeko, eta logika bati jarraituta erlazionatzeko.

## EBALUAZIOA

Ikasleak bereganatu dituen lorpenen ebaluazioak prozesu sistematiko batean oinarrituta egon behar du. Prozesu hori arreta handiz programatu beharko da, eta prestakuntzaren garapen

sekuentzialean agertzen diren egoera desberdinetarako berariazko ekintzak zehaztu beharko ditu. Jarduera horietako batzuk moduluaren hasierako zirkunstantziei lotuta edo dagozkion erdiko etapei lotuta agertuko dira; beste batzuk ikaskuntzaren aurrerapena etengabe eta une oro ebaluatzeko aurreikusiko dira; eta lortutako gaitasunak behin-betiko baloratzeko ebaluazio-metodo zehatz batzuk aukeratuko dira.

Ikasleen etengabeko ebaluazioak irakasleari ikasle bakoitzaren aurrerapenari buruzko informazioa eskainiko dio eta, bestalde, prestakuntza-tresna osagarria izango da, ikasleen aurrean zirkunstantzia zehatzetan izan dituzten lorpenak eta egin dituzten hutsegiteak argi eta garbi adieraziz.

Informazio pertsonalizatu eta etengabe horri esker irakasleak prestakuntza-prozesuan curriculum egokitzeko, eta errefortzu nahiz errepaso gisako neurri zehatz batzuk edo metodo didaktiko alternatibo batzuk hartzeko aukera izango du, ikaslearen aurrerapena indartu eta homogeneizatzearen.

Moduluaren amaieran banakako probaren bat ezarri nahi baldin bada, ikasleek fabrika-obren burutzapenean (ingurugiroaren gaineko errespetua kontuan izanik) erdietsi duten lorpen-maila behatzeko aukera eman beharko luke.





## **4. UNITATE DIDAKTIKOA: ERAIKUNTZA ETA INGURUGIROA**

### **4.1. Berariazko helburuak**

Unitate didaktiko hau amaitzen denean, ikasleek ondoko gaitasunak lortu beharko dituzte:

- Materialen erauzketak, transformazio- eta fabrikazio-prozesuek, materialen garraioak eta eraikuntzarako erabiltzen diren baliabide materialen ustiapen desegokiak ekartzen dituzten ingurugiro-inplikazioak ezagutzea.
- Beren jarduerako eta antzeko jardueretako hondakinak ezagutu eta identifikatzea.
- Bere jardueratik eratortzen diren hondakinen okerreko tratamendu batek ekar ditzakeen erantzukizunak ezagutzea eta kontuan izatea.
- Profesionalki jardutea jarduerarekin erlazionatuta dauden inpaktu-mota desberdinak minimizatuz (zarata, hautsa, hondakin-ura, eta abar).
- Hondakin-kudeatzaileak eta beren erabilgarritasuna ezagutzea.
- Hondakin bakoitzari bere ezaugarrien arabera eman behar zaion tratamendua erabiltzea.
- 3 ekintza nagusiak beren mailan aplikatzea: birziklapena, berrerabilpena eta murriztapena.
- Garapen jasangarriaren kontzeptua eta berau ahalbidetzen duten jarduketak ezagutzea.

Helburu hauetan barne hartzen diren gaitasunak eskuratzeko jarduera desberdinetan oinarrituko gara, zeinak hurrengo atalean adierazten diren edukietan oinarritzen diren eta ikasleentzat esanguratsuak diren. Honela, eduki horiekin erlazionatuta dauden jarduerak sekuentziatuko dira.

## 4.2. Edukiak

### PROZEDURAZKOAK

- Lehengaien eta materialen erauzketa eta beren ingurugiro-inplikazioa erlazionatzen dituzten lan praktikoen burutzapena.
- Harrobiei buruz (hormigoirako, marmolerako, eta abar) indarrean dagoen araudia erabiltzea, eta hauek EAEko eta bere ingurueta-ko mapetan kokatzea eskualdeen arabera.
- Eraikuntzara destinatzen diren material desberdinen transformazioari eta fabrikazioari loturik dauden lan praktikoen burutzapena.
- Zementu, igeltsu, kare, hormigoitze-zentral, adreilu, altzairu, PVC eta abarrei loturiko industrien instalazioari buruzko araudia erabiltzen jakitea.
- Hondakinen tratamenduari loturik dauden lan praktikoen burutzapena (zabortegi kontrolatuen eta kontrolatu gabeen argazkiak ateratzea, hondakinen tratamendu eta kudeaketara dedikatzen diren enpresen zerrendak egitea, eta abar).
- Eraikuntzari dagokionez, ingurugiroari buruzko berariazko araudia erabiltzea.
- Antolaketa eta kontrolerako teknika errazak eta arinak erabiltzea (fitxak, formularioak, eta abar).
- Eraikuntzako hondakinen tratamendu eta kudeaketatik erator-tzen diren arazoetarako egon daitezkeen konponbideen hautaketa, lanketa eta balorazioa egitea.

### KONTZEPTUZKOAK

- Ingurugiroari buruzko berariazko araudia, orokorrean eraikuntzari eta partikulariki bere lanbide-jarduerari loturik dagoena.
- Lanbide-jarduerak ingurugiroaren gainean sortzen dituen inpaktuak:
  - Zarata.
  - Poluzioa.
  - Hondakinak.
- Material berrerabilgarriak, materialen birziklapenerako eta berrerabilpenerako prozedurak.
- Hondakinen jatorria.
- Materialak botatzerakoan dauden arriskuak.
- Arreta eta segurtasunerako arauak, materialak maneiatzerakoan.
- Garapen jasagarria eta eraikuntza.

### JARRERAZKOAK

- Hondakinak beren birziklapen edo berrerabilpen posiblerako banandu beharraz jabetzea, hauen kantitatea ahalik eta gehien murrizten ahaleginduz.
- Materialen birziklapenak eta berrerabilpenak duten garrantzi sozioekonomikoa.
- Lehengaien agortzearen aurrean sentsibilitatea azaltzea.
- Lanean giro-baldintza egokiak izateak duen garrantziaz jabetzea.
- Osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen substantziak kontu handiz erabiltzea.
- Lantegian baliabideak behar bezala mantentzeko arauak errespetatzea.
- Sortzen den informazioa zehaztasun handiz eta txukun aurkezte.
- Materialen ustiapen- eta baztertze-sistemen aurrean jarrera kritikoa azaltzea.
- Materialak erabili eta botatzeak etorkizuneko belaunaldientzat izan ditzaketen ondorioez jabetzea.

### 4.3. Jarduerak

| ORDUAK<br>(17)           | IRAKATSI ETA<br>IKASTEKO JARDUERAK                                                                                                                                                                                                   | OHAR DIDAKTIKO/<br>METODOLOGIKOAK                                                                                                | EBALUATZEKO<br>JARDUERAK                                                                                                                                                                                                                                                |
|--------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1. zatia</b><br>1 or. | <b>1.- Unitate didaktikoaren aurkezpena</b><br>– Unitatearen helburuen azalpena.                                                                                                                                                     | Gaia orokorki azalduko da.                                                                                                       | • Sortutako interesa ikustea.                                                                                                                                                                                                                                           |
| <b>2. zatia</b><br>1 or. | <b>2.- Nola egiten dugu eraispen bat?</b><br>– Eraispen-prozesu bati eta bere hondakinen kudeaketari buruzko suposizio praktikoa baten aurkezpena, produkzio-sektore honen eta ingurugiroaren artean dagoen inplikazioa eza-gutzeko. | Suposizio praktikoa sortutako in-paktuak zerrendatzen dituen taula emango da.<br>Lana gehienez 4 pertsonako talde-tan egingo da. | • Aurkeztutako prozesua bere burutzapenean zehar beha-tzea eta egin den lanaren eta ikasleen jarreraren balorazioa egitea.                                                                                                                                              |
| 1or.                     | <b>3.- Zer dakigu ingurugiroari buruz?</b><br>– Ingurugiroa eta eraikuntzari buruzko galde-sorta bat entregatu eta betetzea.                                                                                                         | Lana banakakoa izango da.                                                                                                        | • 5. jardueran egingo da.                                                                                                                                                                                                                                               |
| 1or.                     | <b>4.- Gure lanbide-jarduerak poluitzaileak al dira?</b><br>– 2. jardueran landutako suposizio praktikoa baten bateratze-lana.<br>– Eraikuntza-jarduerak sortzen duten poluzioa-ri buruzko ondorioak ateratzea.                      | 2. jarduerako taularen batera-tze-lana egingo da.                                                                                | • Partehartzearen eta talde-lanaren balorazioa egitea eta ondorioak ateratzea.                                                                                                                                                                                          |
| 1 or.                    | <b>5.- Eraikuntza eta ingurugiroa</b><br>– 3. jardueraren zuzenketa.<br>– Ingurugiro-terminoen hiztegia ematea.                                                                                                                      | Lana gehienez 4 pertsonako talde-tan egingo da.                                                                                  | • Partehartzearen eta talde-lanaren balorazioa egitea eta ondorioak ateratzea.                                                                                                                                                                                          |
| 6 or.                    | <b>6.- Eraispenak eta hondakinen kudeaketa</b><br>– Eraispenei eta beren kudeaketari buruzko azalpen teorikoa.<br>– Eraispen baten suposizio praktikoa baten ebaz-pena.                                                              | Lana 4 pertsonako talde-tan egingo da eta talde guztien bateratze-lana egingo da ondoren.                                        | • Suposizio praktikoa buruzko txosten bat lantzea.                                                                                                                                                                                                                      |
| 2 or.                    | <b>7.- Hondakinak kudeatzeko plana</b><br>– Igeltserotzako hondakinak kudeatzeko plan bat lantzea ikastetxerako.                                                                                                                     | Talde-lana eta bateratze-lana.                                                                                                   | • Igeltserotzako Hondakinak Kudeatzeko Planaren egokitzapena, zentrorako.                                                                                                                                                                                               |
| 1 or.                    | <b>8.- Lehengaiaren erauztea</b><br>– Lanbide-jardueraren burutzapenean erabili-tako lehengai edo materialen erauzketa-pro-zesu bati buruzko suposizio praktikoa.                                                                    | Lana gehienez 4 pertsonako talde-tan egingo da.<br>Ondoren talde guztien eztabaida eta bateratze-lana egingo da.                 | • Aurkeztutako prozesua bere burutzapenean zehar beha-tzea eta egin den lanaren eta ikasleen jarreraren balorazioa egitea.                                                                                                                                              |
| 2 or.                    | <b>9.- Lehengaien transformazioa</b><br>– Lehengaien transformaziorako edo lanbide-jardueran ohiko erabilerakoak diren materialen fabrikaziorako prozesu bati buruzko suposizio praktikoa.                                           | Lana gehienez 4 pertsonako talde-tan egingo da.<br>Ondoren talde guztien batera-tze-lana egingo da.                              | • Aurkeztutako prozesua bere burutzapenean zehar beha-tzea eta egin den lanaren eta ikasleen jarreraren balorazioa egitea.                                                                                                                                              |
| 1 or.                    | <b>10.- Garapen jasangarria eta ISO-9000 / ISO-14000 arauak</b><br>– ERAIKUNTZA ETA GARAPEN JASANGARRIA gaiaren azalpena.<br>– ISO-9000 eta ISO-14000 Arauak.                                                                        | Gaia orokorki azalduko da.                                                                                                       | • Azalpenekiko arreta.                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <b>Resto curso</b>       | <b>11.- Sentsibilizazioa eta aplikazioa</b><br>– UD hau inkorporatu den heziketa-zikloa ira-kasten den denboran zehar, UD-an garatu diren kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak aplikatzea.                                           | Lana, moduluaren zehar esleitzen zaiz-kien funtzio desberdinak garatzera-koan, banaka egingo da.                                 | • Ikasturte osoan zehar ikasleak UDaren irakaskuntzaren on-dorioz jaso dituen irakaskuntzak aplikatzen ote dituen beha-tzea.<br>• Ikasle bakoitza ikasturtean zehar esleitzen zaizkion funtzioetako bakoitza amaitu on-doren landu beharko dituen txostenak baloratzea. |

#### BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Gardenkiak, ikasgelan egingo diren azalpenetarako.

Eraikuntzarekin erlazionatuta dagoen Legeriari loturiko Bilduma.

Zementua fabrikatzen duten enpresen zerrenda.  
Eraispenei eta hondakinen birziklapenaren problematikari buruzko eranskinak.





## 5. JARDUEREN DESKRIBAPENA

| JARDUEREN ANTOLAKETA |                                                                               |                         |
|----------------------|-------------------------------------------------------------------------------|-------------------------|
| ZK.                  | IZENA                                                                         | DENBORA                 |
| 1                    | Unitate didaktikoaren aurkezpena.                                             | 1                       |
| 2                    | Nola egiten dugu eraispen bat?                                                | 1                       |
| 3                    | Zer dakigu ingurugiroari buruz?                                               | 1                       |
| 4                    | Gure lanbide-jarduerak poluitzaileak al dira?                                 | 1                       |
| 5                    | Eraikuntza eta ingurugiroa.                                                   | 1                       |
| 6                    | Eraispenak eta hondakinen kudeaketa.                                          | 6                       |
| 7                    | Hondakinak kudeatzeko plana.                                                  | 2                       |
| 8                    | Lehengaia erauzteak.                                                          | 1                       |
| 9                    | Lehengaiaren transformazioa.                                                  | 2                       |
| 10                   | Garapen jasagarria eta ISO-9000 / ISO-14000 arauak.                           | 1                       |
| 11                   | Sentsibilizazioa eta aplikazioa. (heziketa-zikloaren ordu praktikoetan zehar) |                         |
|                      |                                                                               | <b>Guztira: 17 ordu</b> |

Jardueretako bakoitza honako hauek osatzen dituzte:

- Irakasleentzako materiala: garapen metodologikoa, gardenkiak, betetako galdesortak...
- Ikasleentzako materiala: txostenak, galdesortak, fitxak.
- Eranskinak (bidezkoztat jotzen denean).

Gardenki gisa adierazten den materiala orri osoko formatuarekin aurkezten da, irakasleek azetatoetan fotokopiak egin ahal izateko.

Eranskinetan material osagarria barne hartu da jarduera burutu ahal izateko, irakasleen irizpidearen arabera material hau ikasleei entregatuko zaie edo beste moduren batean erabiliko da.

Unitate didaktikoa garatzen duten jarduera-multzoan, produkzio-sektore desberdinei loturik dagoen ingurugiro-problematikaren barruan gaur egun erreferentzia gisa kontuan izan beharreko gai jakin batzuk barne hartzeko ahalegina egin da:

- Garapen jasagarria.
- ISO 14000 arauak.
- IKS (Ingurugiroa Kudeatzeko Sistema).
- Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokiak (IPE).
- Ingurugiroarekin erlazionatutako produkzio-sektorearen legeria.

Eraikuntzako heziketa-zikloak irakasten direneko zentroen ezaugarri bereziak direla medio, eta ikasleen artean lan praktikoak nola antolatzen diren kontuan izanik, ikasturtean zehar benetako aplikazioa gauzatu daiteke hondakinen gaikako bilketari, birziklatzeari, berrerabilpenari eta abarrei dagokienez.

Honela, ikasleak ingurugiroari loturiko gaiei buruzko kontzientzia har dezan eta bere lantokian azalduko dituen jarrera-ohiturak har ditzan lor daiteke.



# 1. jarduera



| IZENBURUA                        | KOKAPENA                | KALKULATU DEN DENBORA |
|----------------------------------|-------------------------|-----------------------|
| Unitate didaktikoaren aurkezpena | Teoriako gela eta etxea | 1 ordu                |

## HELBURU OPERATIBOAK

- Ikasleari ingurugiroari buruzko UDaren ildo nagusiak erakustea.
- Ikasleak ingurugiroarekin erlazionatuta dauden gaietako buruzko interesa adieraz dezaten lortzeko motibatzea. (Honela, unitatearen garapenean zehar beren aldetik harrera handiagoa lortzea da helburua).

## BALIABIDEAK

- Gardenkiak (bost), "Eraikuntza eta ingurugiroa" unitate didaktikoaren aurkezpenerako eske-mekin.
- Prentsan, aldizkarietan... jasotako dokumentazioa.
- Taldeen araberrako karpetak jaso den dokumentazioa artxibatzeko.
- Eranskina: Kontuz etxearekin.

## METODOLOGIA

### 1. "ERAIKUNTZA ETA INGURUGIROA" UNITATE DIDAKTIKOAREN AURKEZPENA.

Gaineratzen diren gardenkien bidez egingo da, irakasleen lanaren osagarri gisa. Gardenki hauen kopiak ikasleei gaiaren azalpena hasi baino lehen entregatuko zaizkie.

### 2. DOKUMENTAZIO-BILKETA

Jarduera honek ondoko baldintza hauek bete beharko ditu:

- Eskolaz kanpoko ordutegian egingo da.
- Ikasle guztiek parte hartu beharko dute.
- Unitate didaktikoa irakasten hasteko unera arte motibazioa handituz joango da, irakasleen interesa handituz.

Dokumentazio-bilketa antolatzeko ondoko eran jardun beharko da:

- Ikasleei aholkua ematen zaie, dokumentazioa non aurki dezaketen adieraziz.
- 4 pertsonako taldeak eratzen dira.
- Talde bakoitzean ordezkari bat izendatuko da, eta honek bildu diren materialak antolatu-tuko ditu.
- Talde bakoitzak ekarritako materialarekin aste bete pasa ondoren bateratze-lana egingo da.
- Lortzen den materiala fotokopiatu egingo da eta talde guztiei entregatuko zaie.

- Interesgarria izango litzateke irakasleak bere kontura dokumentazio eguneratua lortzea, honela ikasleen dokumentazio-bilketak kale eginez gero hura erabiliko litzake.

Oharra: aste bete barru nahikoa informazioa ez bada jaso, bilaketa beste aste pare bat luza daiteke.

### EBALUAZIOA

#### JARDUERAK

- Egindako lana bildu eta baloratzea.
- Prozesuaren exekuzioan zehar piztu den interesa behatzea.

#### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Zorroztasuna eta zehaztasuna egin den lanean.
- Ikasleen jarrera.



*a*

# 1. jarduera



|                                                      |                                                                                                                                  |                                                                                                                               |
|------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IZENBURUA</b><br>Unitate didaktikoaren aurkezpena | <br><b>KOKAPENA</b><br>Teoriako gela eta etxea | <b>KALKULATU DEN DENBORA</b><br>1 ordu<br> |
|------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

## HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Ikasleari ingurugiroari buruzko UDaren ildo nagusiak erakustea.
- ☞ Ingurugiroarekin erlazionatuta dauden gaiei buruzko interesa piztu eta motibatzea.

## GARAPENA

“Eraikuntza eta ingurugiroa” unitate didaktikoaren aurkezpena, bere helburuak eta eraikuntzaren produkzio-sektoreak ingurugiroaren gainean izan dezakeen eragina azalduz.

ONDOKOA ESKATZEN DA:

- Ingurugiroari buruzko albisteak taldeka biltzea.


Horretarako 3 eta 5 pertsona bitarteko taldeak eratu behar dituzue, eta talde bakoitzean ordezkari bat izendatu behar da.



Atal hau eskolako orduetatik kanpo egin beharko da. Taldeko kideko bakoitzak prentsan eta/edo gure produkzio-jarduerarekin erlazionatuta dauden aldizkarietan aurki ditzakeen ingurugiroari buruzko albisteak bilduko ditu.


Albiste horiek eman zaizuen karpetan sailkatu eta artxibatuko dira, lan-taldeak ezartzen dituen irizpideen arabera. Taldearen ordezkariak gordeko du karpeta hori.

Aste bete igaro ondoren taldearen ordezkariak ordura arte bildu diren albisteen fotokopia bat entregatuko du.


Adierazten den egunean karpeta guztiak entregatuko dira, hauek bildu eta baloratzeko.







# PRODUKZIO-SEKTOREAREN ERAGINA INGURUGIROAREN GAI NEAN







# 1. jardueraren eranskina



8•SABADO A SABADO

EL CORREO SABADO, 5 DE ABRIL DE 1997

REPORTAJE

# KONTUZ ETXEAREKIN

ISABEL GONZALEZ CAVIA

Gure etxeak eraikitzeke erabiltzen diren material guztiek ez dituzte "ontzat" hartze-ko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen. Alderdi honi dagokionez arauak gero eta zorrotzagoak izan arren, legeak onartzen dituen produktu askok gure organismoari kalte egiten dioten lurrin edo substantzia toxikoak jaulkitzen dituzte. Hauetariko batzuk beren manipulazioan zehar bakarrik dira kaltegarriak; beste batzuek beren eragin kaltegarria urteetan zehar mantenduko dute; beste kasu batzuetan, arriskua egoera larrietan bakarrik sor daiteke, esate baterako suteetan eta abar. Kasu hauetariko gehienetan, sortzen diren kalteak ez dira oso larriak. Baina, hala eta guztiz ere, hobe da saihestea. Etxean erabiltzen den material sintetiko bakoitzaren-tzat ordezko natural bat aurki dezakegu. Informa zaitez eta, ahal duzun guztietan, erabil itzazu produktu alternatibo naturalak.

## HODIERIA

- **Berunezko hodiak:** oraindik ere etxe askotan honelakoak daude, eta osasunarentzako arriskutsuak dira; beruna disolbatu eta uretara igaro daitekeelako. Komenigarria izango litzateke udal agintariei edateko uraren berun-kontzentrazioa egiazta dezaten eskatzea. Tutuak aldatzea ezinezkoa baldin bada komenigarria izango da ur-iragazki bat erostea, baina hau askotan aldatu beharko da. Goizetan, aurreneurri bezala, ura edan baino lehen erabil ezazu beste zeregin batzuetarako, gauean zehar hodietan atxikita geratu dena zirkulatzeko.
- **Kobrezko hodiak:** hobe da hauek erabiltzea berunezkoak baino, baina soldadurak berunarekin eginda ez egotea ziurtatu beharko da.
- **Plastikozko hodiak:** ura osagai kimiko lurrinkorrek polui dezakete, esate baterako PVCekin. Har itzazu berunezko hodiekin hartu dituzun aurreneurriak.

## ZIGILATZAILEAK

Larruazala narrita dezakete. Bainu-ontzietan eta harrasken inguruan erabiltzen diren silikonazko zigilatzaileak

lurrin kaltegarriak jaulkitzen dituzte, eta leku aireztatueta bakarrik aplikatu behar dira. Lehortzen direnean, ez dute inolako arriskurik.

## DESUGERTZAILEAK

- **Desugertzaileak pinturetarako:** disolbatzaile arriskutsuak dituzte eta, izan ere, etxeetako dekorazioan erabiltzen diren artikulurik toxikoenak dira. Komenigarria izango da hauen ordez diklorometanorik eta sosa kaustikorik ez duten eta lurrinik jaulkitzen ez duten produktuak erostea. Pintura naturala fabrikatzen duten enpresek kalterik egiten ez duen ore desugertzailea eskaintzen dute.
- **Desugertzaileak bernizetarako:** osasunarentzat kaltegarriak diren disolbatzaileak barne hartzen dituzte. Oso ongi aireztaturik dauden lekuetan erabili behar diren produktuak dira, beren lurrinen dispersioa errazteko, eta sutik urrun egon behar dute, oso sukoia direlako.

## DISOLBATZAILEAK

- **Estirenoa:** larruazala narritatzen du. Kontzentrazio altuekiko esposizioak begietan lesio larriak sortzen ditu;

esposizio luze batek nerbio-sisteman ere kalteak sor ditzake. Substantzia honetan oinarritzen den poro-estalgari batek normalki ez du lurrin toxikorik sortzen etxeko lanetan. Hala eta guztiz ere, aurreneurriak hartu behar dira; ongi aireztatu behar da eta larruazala eta begiak babestu behar dira.

- **Konposatu organokloratuak:** hauen artean disolbatzaile desberdinak barne hartzen dira. Ez dira biodegradagarriak. Berotzen edo erretzen direnean, disolbatzaileen lurrinek gas toxikoak sortzen dituzte.

## PINTURA

Pinturen eta esmalteen konposizioak, toxikoak edo alergenokoak izan daitezkeen substantzien proportzio altua du. Besteak beste: beruna, kadmioa eta disolbatzaile eta fungizida desberdinak; garbigarriek plastikoak barne hartzen dituzte, hala nola biniloak, akrilikoak eta PVC. Substantzia hauetariko askok gas liberatzen jarrai dezakete pintura jadanik lehortuta egon arren, eta ondoko sintomak sortzen dituzte: logura, buruko mina eta arnas-arazoak.

- **Nitrozululosa:** zululosa oinarritzat duten pintura guztiek barne hartzen dute, eta pintura hauek modelismoan eta kotxeetan erabili ohi dira. Bihotzarengan eragin bizkorgarria sortzen dute, eta beraz lurrina inhalatzea saihestu behar da. Barne hartzen dituzten disolbatzaileek ere lurrinak jaulki ditzakete. Ez erosi pintura-mota honekin margotuta dauden maketak edo jostailuak.

## PIPIKONTRAKOA

1989. urtean debekatu baino lehen,

pipikontrakoeak intsektizida toxiko bat barne hartzen zuten, dieldrin izenekoa. Gaur egun, permetrin izeneko produktu batekin (dieladrina baino arrisku txikiagoa duena, baina Estatu Batuetan kantzerigenotzat hartzen dute) eta oinarri disolbatzaile narritagarri batekin ordezkatu da.

Pipiak arrautzak jar ditzan saihesteko metodo on bat ondoko hau da: gainazalak borax-soluzio batekin bustitzea, berniz natural batekin tratatzea edo erle-argizariarekin leuntzea, arrautzek gainazal leunduak ezin dituztelako zeharkatu.

### ASBESTOIA (amiantoa)

Beroarekiko oso erresistentea den zuntzeko minerala da, garai batean sukotrako ehunak eta abar egiteko erabiltzen zena. Gero eta gutxiago erabiltzen den arren, oraindik ere fibrozementuzko objektuak fabrikatzen dira (hormak gainestaltzeko edo banantzeak egiteko plantxa, tutuak, uhin-formako teila-tuak...). Etxe zaharretan, sukotrako material gisa agertzen da tutuak, galdarak eta deposituak isolatuz, bai eta sabaietan, lurzoruan, tauletan eta sukaldeetako labeetan ere.

### PVC

Polibinil kloruroa erabilera ugari dituen plastiko bat da: elikagai-ontzi-raketa, hodieria, kreditu-txartelak, leihoak, larruzko tapizatua imitatzen duten laminak, zoladurak, eta abar. Jatorrian duen materia, kantzerigeno frogatua eta narritatzaile indartsua da. Lurrindu egin daiteke eta su hartzen badu oso toxikoa da, dioxinak jaulkitzen dituelako.

### ISOLATZAILEAK

Sabaia termikoki isolatzeko erabilitako materiala poliuretanozko apar zurruna edo poliestireno hedatua izatea ziurta ezazu. Badaude zenbait alternatiba, esate baterako bermikulita edo zelulosa-zuntza.

- **Poliuretanozko aparra:** oso substantzia sukoia da, altzariak tapizatze-ko eta eraikuntzan isolatzaile termiko gisa erabili izan dena. Etxeetako suteetan dauden hiru heriotzetatik bat poliuretanozko aparrari egozten zaio. Oso erraz hartzen du su, azkar erretzen da, eta zianuro pozoitsuak barne hartzen dituen ke beltza sortzen du.
- **Ureaformolezko aparra:** hormen

barrurako isolatzaile termikoa. Oso narritagarria da eta kantzerigenoa dela uste da. Etxean gasa libera dezake, aspaldi instalatua izan bada ere.

### LEIHOAK ETA SABAILEIHOAK

- **Polikarbonatoa (PC):** leihoetan eta sabaileihoetan erabiltzen den plastiko gardena; bereziki karabana, galaria eta negutegietan. Beirak ez bezala, izpi ultramoreak igarotzea uzten du. Leiho horien atzean gehiegizko esposizioa saihestea komenigarria da, erreduzuz ere sor daitezkeelako. Altzariak hondatu daitezke eta material sintetikoek lurrin desatseginak jaulki ditzakete. Aireztapen ona dagoela eta altzariak materia natural-ekin egindakoak direla ziurta ezazu.

### TAULAK

Formaldehido izeneko substantziarekin fabrikatzen dira eta bere funtzioa taularen osagaiak elkartzea da. Ustez kantzerigenoa da.

- **Taula aglomeratuak:** sukaldeko armairuen fabrikazioan erabiltzen dira. Bertako zur tinkoarekin edo jaulkipen baxuko taularekin ordezkatzeko gomendatzen da. Estalkietarako marmola, zeramika, zura edo kortxo bernizatua erabil daitezke.
- **Taula kontratxapatuak:** altzarietan eta paneletan aurki ditzakegu. Berriak direnean, formaldehido gas modura libera daiteke. Horrexegatik oso garrantzitsua izango da kontratxapatu pinturarekin edo toxikoa ez den bernizarekin gainestaltzea.

### KARESNEA

Baldosen arteko espazioak betetzeko erabiltzen den mortairu fina edo zakarra da. Zementua barne hartzen duena oso narritagarri indartsua da; kontaktu luze batek erreduzuz sor ditzake. Erretxinazkoa leunagoa da, baina honek ere efektu narritagarriak ditu. Behin aplikatu ondoren ez dira toxikoak.

### ETXERAKO MATERIALAK EROSTEKO IRIZPIDEAK

Materialek, ontzat hartuak izateko, ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- Garbiak izatea, poluitzailerik eta toxikatzailezik ez barne hartzea, eta fabrikazio-prozesuan edo erabiltzen direnean inolako lurrin, hauts, partikula edo usainik ez jaulkitzea.
- Erradiaziorik ez sortzea.
- Elektrizitate estatikoaren eroapena

edo metaketa ez ahalbidetzea, eta eremu magnetikorik ez jaulkitzea.

- Isilak izatea, edo gutxienez soinua moteltzeko propietate onak izatea. Ekologikoak izateko, materialek ondoko baldintzak bete behar dituzte:
- Ugariak eta berriztagarriak izatea, eta iturri natural desberdinetatik erator-tzea.
- Beren fabrikazio-prozesuan edota erabiltzen direnean ez poluitzea, ez eta lurrin, partikula edo substantzia toxikoak jaulkitzea ere.
- Beren fabrikazio, garraio eta erabilera-energia gutxi erabiltzea.
- Iraunkorrak izatea, eta mantendu eta konpontzeko errazak izatea.
- Gutxi alferrik galtzea, eta berrerabili eta birziklatzeko aukera ematea.

### PLAGIZIDAK ETA FUNGIZIDAK

- **Artsenikal konposatuak:** tauletan zura tratatzeko plagizida eta fungizida gisa erabiltzen diren oso substantzia toxikoak. Tratamenduaren ondorengo bi lehen asteetan oso arriskutsuak dira, eta ukituz gero pozoidura eragin dezakete. Zura babes-eskularrik gabe ukituz gero, larruazalean arazo larriak sor ditzakete, bai eta larruazaleko minbizia ere.
- **Tributiltin-oxidoa:** usteldura lehor eta hezeen kontrako fungizida da, korrosiboa eta oso pozoitsua, eta neurotoxikoa eta begi- eta larruazal-narritatzaile indartsua; erreduzuz eta negal mingarriak sortzen ditu. Ustez kantzerigenoa da eta sistema inmunitarioan kalteak sor ditzake; gainera ingurunea asko poluitzen du. Britainia Handian saltzea debekatuta dago.
- **Pentaklorofenola (PCP):** dioxina arriskutsuak barne hartzen ditu, eta herri askotan debekatuta dago. Larruazalaren bitartez zurgatzen bada, bereziki arriskutsua da. Substantzia honekin tratatuak izan diren objektuek toxikoak izaten jarraitzen dute urteak igaro arren.
- **Lindanoa:** ustelduraren aurka erabiltzen den intsektizida da. Txosten desberdinek diotenez, lindanoa hautsez-tatu den eraikinetan sintoma desberdinak agertu dira: buruko min handiak, goragaleak, kontzentrazio-gaitasun txikia eta epe luzeragoko eraginak, hala nola gibelesko eta giltzurrunetako kalteak, epilepsia, eta abar. Herri askotan bere erabilera debekatuta edo oso mugatuta dago.





# 1. jardueraren eranskina



*Knauf España apuesta por reforestar las canteras*

## Extracción de yeso ecológico

SILVIA RESA

La empresa Knauf España, filial de Knauf GmbH, grupo europeo dedicado a la fabricación de productos derivados del yeso y materiales aislantes, ha desarrollado un sistema innovador en la explotación de canteras, consistente en su posterior reforestación y aprovechamiento para la agricultura.

Para ello, la extracción sigue un riguroso plan a largo plazo, con la restauración geológica del suelo una vez que está agotado para la explotación del yeso. "El método es el de voladuras a cielo abierto", dice Rosana Gallego, responsable de marketing de Knauf España: "Previamente se valora la vegetación, la antigüedad y el tiempo de reforestación del suelo, iniciándose la explotación por superficie mínima que, una vez agotada, es reforestada".

**Fuentes** de la empresa valoran en 51 millones de pesetas el coste total de extracción, transporte y reforestación de la zona, repartidos durante los 75 años que comprende el periodo de explotación: "No hemos explotado ni siquiera el 2% del total de la cantera", dice Rosana Gallego, en referencia a uno de los yacimientos en España.

La filial de Knauf opera en nuestro país desde hace seis años extrayendo y transformando el yeso en producto final, para lo



Baldwin y Nikolaus Knauf. / EL PAÍS

cual cuenta con canteras en Almería y Lérida, además de una fábrica en esta última, ubicada en la localidad de Guixers, donde se extrae el yeso más puro, que luego se exporta a las plantas de Francia y Reino Unido. La inauguración de las instalaciones de Guixers en 1991, las de mayor desarrollo tecnológico del grupo, supuso una inversión superior a los 3.500 millones de pesetas, y hoy cuenta con una capacidad de producción de 20 millones de metros cuadrados de placas de yeso anuales, 4,5 para el mercado nacional.

La cifra de ventas se reparte al 50% entre el territorio nacional y la exportación, que vienen a representar un valor conjunto de negocio de 2.600 millones de pesetas, dando empleo a un total de 100 trabajadores.


El grupo Knauf, de composición familiar y con más de 60 años de historia —actualmente Baldwin y Nikolaus Knauf son los socios gestores de la empresa—, cuenta con una plantilla global de 5.000 trabajadores, y está presente en toda Europa a través de una red de 31 fábricas de placas de yeso, cal, caliza, cementos y morteros premezclados, además de otras 33 plantas destinadas a materiales aislantes para fines industriales, construcción de viviendas y poliestirenos, entre otros.

**Los sistemas** constructivos de Knauf —trasdosados, tabiquería, soleras, protección a fuego y techos— se completan con perfiles, tornillos autoperforantes, pastas de juntas y agarre y cinta de juntas, comercializando también la maquinaria para la elaboración y aplicación de los productos derivados del yeso.

La exportación, que sólo para España supuso más del 56% del total de entregas del pasado año, llevará al grupo a la apertura de nuevos mercados en Suramérica y África en los próximos ejercicios. [Más información: ☎ (91) 383 05 40].


Hurrengo informazioa, El País egunkarian, 1996-3-3an argitaratu zen.

**LA EMPRESA  
EXCAVACIONES  
Y CONTRATAS  
SARASOLA, S.A.**  
pionera en Euskadi  
en el tratamiento ecológico  
de materiales de derribo.



Por medio de mordazas hidráulicas, la empresa **EXCAVACIONES Y CONTRATAS SARASOLA, S.A.**, de San Sebastián, está efectuando durante estos días el derribo de los pabellones industriales "Palmera" de Irun.

## Reciclado de materiales procedentes de derribos



Es de resaltar que con una máquina recicladora se tritura el material y se obtiene un producto de muy buena calidad para ser utilizado nuevamente en la construcción.

Con esta moderna instalación se consigue la eliminación de las escombreras, pues el material es triturado y reciclado en la misma obra.

Es la primera vez que se emplea en Euskadi esta técnica de recuperación para materiales procedentes de derribos.



Pº de Ondarreia, 14 - bajo  
Tel. (943) 21 96 92 • Fax (943) 21 87 38  
20008 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN



## 2. jarduera



| IZENBURUA                     | KOKAPENA      | KALKULATU DEN DENBORA |
|-------------------------------|---------------|-----------------------|
| Nola egiten dugu eraipen bat? | Teoriako gela | 1 ordu                |

### HELBURU OPERATIBOAK

- Eraikuntza eta obra zibileko proiektuek oro har ingurugiroari loturik sortzen dituzten ondorioak identifikatzea.

### BALIABIDEAK

- ♦ Taula: Eraikuntzaren inpaktuak.
- ♦ Eranskina: Joan Rieradevall Pons eta Pere Fullana Palmerren "El ACV una herramienta básica para la Gestión Ambiental" izeneko ponentzia. Eraikuntza eta garapen jasangarriari buruzko I. Jardunaldiak, Bartzelona, 1996ko maiatzak 16, 17 eta 18.
- ♦ Eranskina: Patricia Cortijoren "Análisis del ciclo de vida de los materiales de construcción" artikulua. Eztabaida Taldea/Eraikuntza eta Ingurugiroa.

### METODOLOGIA

#### 1. SUPOSIZIO PRAKTIKOAREN AURKEZPENA

Talde bakoitzari kopia bat entregatuko zaio landuko den suposizio praktikoarekin. Talde bakoitzak pertsona bat bozeramaile/koordinatzaile izendatuko du, eta honek idatziz taldean landutako guztia adieraziko du.

#### 2. SUPOSIZIO PRAKTIKOA

Eraikuntza eta Ingurugiroari buruzko UD hau aplikatzen ari den Institutua kokatuta dagoen eraikinak bertan irakatsi nahi diren lanbideak barne hartzeko baldintza egokiak betetzen ez dituela pentsatu da, eta beraz eraitsi egin nahi da, ondoren eraikuntzarekin erlazionatuta dauden lanbideak irakasteko Institutu baten beharretara egokituko den eraikin berri bat eraikitzeko.

Zera eskatzen da:

- 4 pertsonako taldetan, eraipen eta eraikuntzarako proiektu honek dituen ingurugiro-inplikazioak aztertzea.

### EBALUAZIOA

#### JARDUERAK

- Egindako lana jaso eta baloratzea.
- Prozesuan zehar taldeak behatzea.

#### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Zorroztasuna eta zehaztasuna egin den lanean.
- Ikasleen jarrera.

## ERAIKUNTZAK SOR DITZAKEEN INPAKTUAK

| GARATU BEHARRE-KO JARDUERAK | INGURUGIROA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                          |                                                                                                                                          |                                                                                                                |                                                                                                                                          | BESTE ZENBAIT KONTSIDERAZIO                                                                                                                                     |
|-----------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                             | AIREA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | URA                                                                                                                      | LURZORUA                                                                                                                                 | INGURU SOZIOEKONOMIKOA                                                                                         | KULTUR INGURUNEA                                                                                                                         |                                                                                                                                                                 |
| ERAISPENA                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Hautsa</li> <li>Zarata</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>Produktu toxikoak arrastatzeko posibilitatea.</li> </ul>                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>Inguruaren degradazioa.</li> </ul>                                                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerrian edo eskualdean lanpostuak sortzeko aukera.</li> </ul>        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Eraitsi beharreko eraikinaren ezaugarrien arabera.</li> </ul>                                     |                                                                                                                                                                 |
| GARRAIOA                    | <ul style="list-style-type: none"> <li>Hautsa</li> <li>Zarata</li> <li>CO<sub>2</sub></li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | <ul style="list-style-type: none"> <li>Kamioien garbiketa.</li> </ul>                                                    |                                                                                                                                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>Udalerrian edo eskualdean lanpostuak sortzeko aukera.</li> </ul>        |                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                 |
| ZABORTEGIA                  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Hautsa</li> <li>Zarata</li> <li>Sor daitezkeen poluzioak.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>Lixibiatuak</li> </ul>                                                            | <ul style="list-style-type: none"> <li>Lurzoru-galerak.</li> <li>Substantzia toxikoen eraginagatik egon daitezkeen poluzioak.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Zabortegi kontrolatuak eta kontrolatu gabeak kontuan izatea.</li> </ul> |                                                                                                                                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gastu energetikoak.</li> </ul>                                                                                           |
| PROIEKTUA IDAZTEA           | <p>Inguruetak bakoitzean inplikazioak bereizteko zailtasuna.</p> <p>Baina bertan, eraikin berriaren bizi-zikloan zehar ingurugiroaren gaineko eraginaren zatirik handiena sortu edo saihestu daiteke. Hori guztia ondorengo hauen arabera: eraikinaren egitura, arkitektura bioklimatikoaren erabiltzea, ingurugiro-inpaktu txikiko materialak erabiltzea, toxikoak alde batera utziz eta birzikla daitezkeenei lehentasuna emanez, deseraikuntza erraztuko duten eraikuntza-taknikak erabiltzea, energia berriztagarriak erabiltzea, baliabide energetikoak, hidraulikoak, mantenimendua, instalazioak, eta abar.</p> |                                                                                                                          |                                                                                                                                          |                                                                                                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>Eraikinaren diseinuaren arabera, udalerrizako ondare-inpaktua eta/edo inpaktu bisuala.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Arkitektura-azterlanaren beraren funtzionamendutik eratorritzen diren ingurugiro-inplikazioak kontuan izatea.</li> </ul> |
| ERAIKIN BERRIA ERAIKITZEA   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Hautsa</li> <li>Zarata</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | <ul style="list-style-type: none"> <li>Obrako makineria eta osagarriak garbitzea.</li> <li>Obrako kontsumoak.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Obrako hondakinen isurketagatiko degradazioa.</li> </ul>                                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>Lanpostuak sortzeko aukera.</li> </ul>                                  |                                                                                                                                          | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gastu energetikoak.</li> </ul>                                                                                           |
| ERAIKINAREN USTIAPENA       | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gas-jaukipenak.</li> <li>Zarata</li> <li>Hautsa</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>Ustiapeneko kontsumoak.</li> </ul>                                                | <ul style="list-style-type: none"> <li>Inguruaren balizko degradazioa.</li> </ul>                                                        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Inguruetak biztanleek kanpoko berdeguneak erabiltzea.</li> </ul>        | <ul style="list-style-type: none"> <li>Eskolako egoitzak udalerriko kultur jardueretarako erabiltzea.</li> </ul>                         | <ul style="list-style-type: none"> <li>Gastu energetikoak.</li> </ul>                                                                                           |

*a*

## 2. jarduera



|                                                      |                                                                                                                           |                                                                                                                               |
|------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IZENBURUA</b><br>Nola egiten dugu<br>eraipen bat? | <br><b>KOKAPENA</b><br>Teoriako<br>gela | <b>KALKULATU DEN DENBORA</b><br>1 ordu<br> |
|------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

### HELBURU OPERATIBOAK

- Eraikuntza eta obra zibileko proiektuek oro har ingurugiroari loturik sortzen dituzten ondorioak identifikatzea.

### GARAPENA

#### 1.- SUPOSIZIO PRAKTIKOA

Institutua kokatuta dagoen eraikinak bertan irakatsi nahi diren lanbideak barne hartzeko baldintza egokiak betetzen ez dituela pentsatu da, eta beraz eraitsi egin nahi da, ondoren eraikuntzarekin erlazioan dauden lanbideak irakasteko Institutu baten beharretara egokituko den eraikin berri bat eraikitzeko.

Zera eskatzen da:

1. jarduerako lan-talde berdinekin eraipen eta eraikuntzarako proiektu honek dituen ingurugiro-inplikazioak aztertzea.


Bigarren jarduera honetan taldearen ordezkaria mantendu edo aldatu ahal izango da, hori taldeak berak erabakiko du.

Lan-talde bakoitzaren ordezkariak, jardueraren burutzapenean zehar egon daitezkeen gorabeherak edo iritzi desberdinak idatziko ditu.

| EIRA KUNTZAREN BALIZKO INPAKTUAK |             |     |          |                             |                    |                       |
|----------------------------------|-------------|-----|----------|-----------------------------|--------------------|-----------------------|
| GARATU BEHARREKO<br>JARDUERAK    | INGURUGIROA |     |          |                             |                    | BESTE<br>ZENBAIT OHAR |
|                                  | AIREA       | URA | LURZORUA | INGURUNE<br>SOZIOEKONOMIKOA | NATUR<br>INGURUNEA |                       |
|                                  |             |     |          |                             |                    |                       |
|                                  |             |     |          |                             |                    |                       |
|                                  |             |     |          |                             |                    |                       |
|                                  |             |     |          |                             |                    |                       |
|                                  |             |     |          |                             |                    |                       |
|                                  |             |     |          |                             |                    |                       |
|                                  |             |     |          |                             |                    |                       |
|                                  |             |     |          |                             |                    |                       |



## 2. jardueraren eranskina



### I JORNADAS: CONSTRUCCIÓN Y DESARROLLO SOSTENIBLE

Barcelona, 16, 17 y 18 de Mayo de 1996

#### EL ACV UNA HERRAMIENTA BÁSICA PARA LA GESTIÓN AMBIENTAL

**Joan Rieradevall Pons**

Diputació de Barcelona

**Pere Fullana Palmer**

Randa Group

Miembros de la subcomisión de ACV de la AEIC

#### 1. Marco Actual

El desarrollo de productos (como los de la construcción) compatibles con el medio ambiente se encuentra, actualmente, en una **fase inicial**. La implantación de estos nuevos productos está condicionada por múltiples factores, que van desde el apoyo de las administraciones, a través de sus políticas ambientales (información, control, legislación, incentivos económicos, fomento de la R+D, diseño, ...), la predisposición de la población al consumo de nuevas viviendas más respetuosas con el medio ambiente, hasta las estrategias y el posicionamiento de profesionales de la arquitectura y empresas de la construcción en la temática ambiental.

En relación con el papel que juegan las administraciones y las empresas en sus actuaciones de mejora ambiental, hay que destacar en los últimos años el fomento y la aplicación en muchos países europeos del Análisis del Ciclo de Vida (ACV) como nueva herramienta de gestión ambiental para la mejora de los productos, pudiéndose encontrar una amplia bibliografía de experiencias prácticas.

#### 2. Análisis del ciclo de vida del producto: conceptos básicos

El ACV tiene como objetivo **analizar** de forma objetiva, metódica, sistemática y científica **el impacto ambiental que ocasionan los productos en todo su ciclo de vida**, desde la extracción de las primeras materias y los recursos energéticos que utilizan en sus procesos de fabricación, en su transporte, hasta su uso y eliminación final. Las **etapas principales** de la metodología ACV son las siguientes: definición de los objetivos y límites del sistema a estudiar, análisis de inventario, impacto ambiental (clasificación, caracterización y valoración) y análisis de mejoras ambientales.

#### Puntos débiles y fuertes actuales del ACV

El ACV es una herramienta que facilita la mejora ambiental de los productos. Sin embargo, aún existen en su proceso de aplicación actual una serie de limitaciones que dificultan su aplicación de forma generalizada y su aceptación por todos los actores.

Las **limitaciones** de los primeros estudios de ACV estaban ocasionadas por la metodología utilizada, procedente del campo de la toxicología (SETAC), y por su aplicación como herramienta defensiva, de imagen y marketing por parte de las empresas demandantes de los estudios (sectores de los plásticos, envases y embalajes, ...). En la **actualidad**, las limitaciones que impiden su aplicación generalizada están más relacionadas con los aspectos de normalización, tecnológicos, costes económicos y de información.

Frente a las limitaciones descritas, el **ACV tiene como valor añadido principal el análisis ambiental global de los productos**, desde su nacimiento a la tumba. Estos estudios incorporan en sus **balances globales de recursos, energía y emisiones** los datos procedentes desde la extracción de las primas materias de las fuentes de energía necesarias en su proceso de fabricación del producto hasta la evaluación del tratamiento final de todas las emisiones generadas en su ciclo integral. Así mismo consideramos el efecto de estas cargas ambientales en todas las categorías de impacto conocidas (efecto invernadero, recursos no renovables, ...). Las empresas que han incorporado el ACV en su toma de decisiones ambientales relativas al producto están obteniendo unos **beneficios directos** como la mejora de su **imagen** y la **reducción de costes** de tratamiento y gestión de los residuos. Otros beneficios proceden de la aplicación en las áreas de organización, calidad y seguridad de la **base de datos ambientales obtenidos**.

Comparación del ACV con otras técnicas ambientales

Uno de los aspectos que diferencia al **ACV** de otras herramientas ambientales es el mismo objeto del estudio: **el producto**. Si comparamos el ACV con las otras dos herramientas más utilizadas actualmente como son las **Auditorías ambientales** y los **Estudios de Impacto Ambiental**, observaremos que sus objetivos son diferentes: **adaptación de la empresa a una norma ambiental** y el **análisis de los macroproyectos**, respectivamente.

### 3. Ámbitos de aplicación en la construcción

Las perspectivas de aplicación del ACV como herramienta para favorecer una construcción compatible con el desarrollo sostenible en nuestro país son muy amplias en los sectores público y privado.

|                                                                                              |              |                 |     |          |
| Zementu hidraulikoaren fabrikazioa.                                                          |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
| Eraikuntzarako altzairuaren fabrikazioa.                                                     |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
| Hondakinak birziklatzeko enpresa.                                                            |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
| Pinturen, bernizen eta tinten fabrikazioa.                                                   |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |
|                                                                                              |              |                 |     |          |



## 5. jarduera



| IZENBURUA                     | KOKAPENA         | KALKULATU DEN DENBORA |
|-------------------------------|------------------|-----------------------|
| Eraikuntza<br>eta ingurugiroa | Teoriako<br>gela | 1 ordu                |

### HELBURU OPERATIBOAK

- Ingurugiroari buruzko galdesortaren erantzunak konparatu eta aztertzea, ingurugiroari loturik dauden gaiei eta ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA izeneko arloan lan eta produkzio-prozesu garrantzitsuenetan ohikoenak diren poluitzaileei dagokienez alde aurreko ezagupenak baloratzeko xedez.
- Bere jarduerarekin erlazionatuta dauden poluzio-mota desberdinak ezagutzea eta baloratzea (zarata, hautsa, hondakin-ura, eta abar).

### BALIABIDEAK

- ◆ Ingurugiroari buruzko galdesorta (3. jardueran erabili dena), ikasle bakoitzari itzuliko zaiolarik, bateratze-lanaren ondoren bertan oharrak edo beren ustez egon daitezkeen aldaketak idazteko.
- ◆ Eranskina: "Ingurugiroari buruzko oinarrizko terminoen hiztegia", beren lanbidearekin erlazionatuta dauden jarduera edo produkzio-prozesuetan gehien erabiltzen diren terminoei arreta berezia eskainiz.

### METODOLOGIA

1. Ingurugiroari buruzko galdesortaren bateratze-lanerako saioa dinamizatuko da, bertan planteatu diren egoera desberdinei eman zaizkien erantzunei buruzko eztabaida egingo delarik.
2. Saioa amaitzen denean ikasleei Ingurugiroari buruzko Oinarrizko Terminoen Hiztegia emango zaie, eraikuntza eta ingurugiroari buruzko UD osatzeko programatu diren jarduerak garatzen direnean erabiliko delarik.

### EBALUAZIOA

#### ACTIVIDADES

- Galdesortaren bateratze-lana.

#### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Prozesuaren burutzapenean zehar behatzea.
- Burutu den lanaren eta ikasleen jarreraren balorazioa egitea.





*a*

## 5. jarduera



|                                                   |                                                                                                                           |                                                                                                                               |
|---------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IZENBURUA</b><br>Eraikuntza<br>eta ingurugiroa | <br><b>KOKAPENA</b><br>Teoriako<br>gela | <b>KALKULATU DEN DENBORA</b><br>1 ordu<br> |
|---------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

### HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Ingurugiroari buruzko galdesortaren erantzunak konparatu eta aztertzea, ingurugiroari loturik dauden gaiei eta ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA izeneko arloan lan eta produkzio-prozesu garrantzitsuenetan ohikoenak diren poluitzaileei dagokienez alde aurreko ezagupenak baloratzeko xedez.
- ☞ Bere jarduerarekin erlazionatuta dauden poluzio-mota desberdinak ezagutzea eta baloratzea (zarata, hautsa, hondakin-ura, eta abar).

### GARAPENA

- 1.- Ingurugiroari buruzko galdesortaren bateratze-lana egingo da, bertan planteatzen diren egoei eman zaizkien erantzunei buruzko eztabaida burutuko delarik.
- 2.- Saioa amaitzen denean Ingurugiroari buruzko Oinarrizko Terminoen Hiztegia emango zaizue, eta hau eraikuntza eta ingurugiroari buruzko UD osatzeko programatu diren ondorengo jarduerak garatzen dituzuenean erabiliko duzuelarik.





## 5. jardueraren eranskina



### ONARRIZKO TERMINOEN HIZTEGIA: "ERAIKUNTZA ETA INGURUGIROA"

#### Jarduera osasungaitzak

Gizakien osasunarentzat zuzenean edo zeharka kaltegarriak izan daitezkeen produktuen askatze edo ebakuazioa dakarten jarduerak dira.

#### Meatze- eta erauzketa-jarduerak

Lurralde osoan, lurralde-itsasoan, plataforma kontinentalean eta itsas-hondoetan dauden meatoki guztien eta aurki daitezkeen gainontzeko baliabide geologikoen (hauen jatorria eta egoera fisikoa edozein izanik ere) ustiapen, ikerketa, aprobetxamendu eta onurari loturik dauden jarduerak dira.

#### Jarduera gogaikarriak

Sortzen dituzten zarata edo bibrazioen ondorioz edo jaulkitzen dituzten ke, gas, usain, lurrin, esekidurako hauts edo substantzien ondorioz deserosotasuna sortzen duten jarduerak dira.

#### Jarduera kaltegarriak

Nekazaritza, baso, abere eta arrain aberastasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen produktuen askatze edo ebakuazioa dakarten jarduerak dira.

#### Jarduera arriskutsuak

Eztanden, erreketen, erradiazioen edo antzeko garrantzia duten gertakarien ondorioz pertsonentzat edo ondasunentzat arriskurik ekar dezaketen produktu toxikoak edo sukoiak manipulatzea, saldu edo biltegiatzea helburu duten jarduerak dira.

#### Ur edangarria

Bere karaktereak erregelamentazio tekniko-sanitarioak baimentzen dituen mugen barruan dituen ura.

#### Hondakin-urak

Merkataritzako, etxeko edo industrietako jardueretan sortzen diren eta urak daramatzan hondakin likido edo solidoak dituzten urak dira.

#### Uraren kalitatea

Ur batek, erabilera partikularrerako bere egokierari dagokionez, dituen ezaugarri kimiko, fisiko eta biologikoak deskribatzeko erabiltzen den terminoa.

#### Isurtze-kanona

Administrazio-ematea zergapetzen duen eta aldiro-aldiro ematen den diru-laguntza, ekoizpen-prozesu baten ondorioz ubide jakin batera isurtzen den ur-kantitatearen arabera.

#### karga-edukiera

Zona baten ezaugarri ekologikoak aldatu gabe egin daitezkeen atsedenezko erabilpenaren gehieneko maila, bide batek higadurarik gabe jasan dezakeen gehieneko trafikoa, edo leku batek jasan dezakeen gehieneko bisitari-kopurua jendez gainezka dagoenaren itxura eman gabe.

#### Poluzio atmosferikoa

Pertsonentzat edo edozein izaerako ondasunentzat (basoak eta berdegunean barne) arriskua, kaltea edo gogaipen larria ekar dezaketen materia edo energi formen presentzia airean.

#### Garapen jasangarria

Garapen-eredu bat da, gaur egungo beharrak asetzen dituen, etorkizuneko belaunaldiak euren beharrak asetzeko gaitasuna murriztu gabe.

### **Ekoetiketa**

Ingurugiroa gehien errespetatzen duten produktuei ematen zaien bereizgarria, horretarako prebentziozko eta murrizketa-irizpide jakin batzuei jarraiki, eta ahal den neurrian, ekoizpen-prozesuan barna eta ondorengo erabileran, poluzioa eliminatzeko irizpideei jarraiki.

### **Energia alternatiboak**

Energia berriztagarriak bezala ere ezagutzen dira. Energia hauen iturriak agortezinak dira, naturan behin eta berriro sortzen baitira.

### **Hondakinen kudeaketa**

Hondakinei, beren ezaugarriak kontuan izanik, destinorik egokiena ematera bideratzen diren jardueren multzoa, giza osasuna, baliabide naturalak eta ingurugiroa babesteko xedez.

### **Ingurugiro-inpaktua**

Industri eta/edo giza jarduera berri batek inguru natural, sozioekonomiko eta/edo kulturalen sortzen dituen aldaketak.

### **Ingurugiro Inpaktuaren Azterketa**

Jarduera berri batek, natur ingurunean eta ingurune sozioekonomikoan eragindako aldaketen analisia, baita eragin daitezkeen alderdi negatiboak minimizatzeko neurri zuzentzaileak ere.

### **Ingurugiro Inpaktuaren Ebaluazioa**

Ingurugiro inpaktuaren azterketa batek jarraitzen duen administrazio-prozesua da, jarduera garatu ote daitekeen ala ez erabakitzeko.

### **Ingurugiro Inpaktuaren Deklarazioa**

Ingurugiroaren alorrean eskumena duen agintaritzaren adierazpen bat da, egon daitezkeen ingurugiroaren gaineko inpaktuak kontuan izanik proiektatzen den jarduera burutzea komenigarria den ala ez erabakiz.

### **Ingurugiro-diagnostikoa**

Jarduera bati dagokionez, ingurugiro-egoeraren txostena.

### **Inpaktu bisuala**

Ekintza edo jarduera jakin batek lurraldeko ezaugarri paisajistikoen gainean izan dezakeen eragina.

### **Jarduera garatzeko baimena**

Jarduera berri bati ekiteko beharrezkoa den baimena, Udalak ematen duena Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiaren arabera.

### **Lixibiazioa**

Harkaitza, sedimentu, lurzoru, hondakindegia eta abarretako osagai disolbagarrien ezabaketa-prozesua, infiltrazioaren bitartez.

### **Arazketa-lokatzak**

Ur-arazketarako tratamendu primario eta sekundarioetan sortzen diren hondakin-sedimentuak, hondakin-urek dituzten substantzia poluitzaileak gehienak bertan kontzentratzen direlarik.

### **Prozeduren gidaliburua**

Elkarte edo erakunde batek, bere jarduerak burutzeko landutako eta ezarritako prozedurak biltzen dituen dokumentua, dagokion kudeaketa-araua errespetatuz.

### **Lehengaia**

Landu gabeko produktua, ekoizpen-prozesuaren lehenengo fasean sartzen dena, ondoren eraldatzeko.



## 5. jardueraren eranskina



### Ingurugiroa

Termino honen definizioa konplexua eta subjektiboa da:

- 1- Organismo, populazio edo komunitate baten gainean eragina duten kanpoko indar edo baldintza guztien multzoa da.
- 2- Izaki bizidunen eta giza-jardueren gainean berehala edo epe luzera zuzeneko edo zeharkako eragina izan dezaketen agente fisiko, kimiko eta biologikoen eta gizarte-faktoreen multzoa da.
- 3- Bizitzeko esparru edo ingurunea.

### Birziklatzea

Beste edozein modutan hondakintzat hartuko liratekeen materialak lehengai gisa erabiltzeko prozesua.

### Uren birzirkulazioa

Produkzio-jarduera bateko hondakin-urak berriro erabiltzea, ekoizpen-prozesu berrira sartu baino lehen hauek araztuz.

### Baliabideak

Elementu eta karaktere natural eta artifizialen atributuak dira, merkataritzan aldaketak edo transferentziak sortzen dituztenak. Baliabideen balioa edo garrantzia, gizakiak kokatzen dituen testuinguruaren arabera kalkulatzen da.

### Betetzea

Eraikuntzako hondakin geldo jakin batzuen isurketa eta lur-berdinketaren bitartez zona baten aldaketa morfologikoa gauzatzea, beti ere 5000m<sup>3</sup>tik beherako bolumena erabiltzen bada.

### Hondakina

Edozein substantzia, objektu edo energia-forma, baldin eta bere jabeak botatzen badu edo botatzeko asmoa edo obligazioa baldin badu.

### Hondakin geldoak

Zabortegi batean utzi ondoren eraldakuntza fisiko-kimiko edo biologiko garrantzitsurik jasaten ez duten eta toxikotzat edo arriskutsutzat hartzen ez diren hondakin solido edo oretsuak dira.

### Geldo bihurtutako hondakinak

Hondakin toxiko edo arriskutsuen geldo bihurtzeko prozesuetan sortzen diren eta toxiko edo arriskutsu izaera galdu duten hondakin solido edo oretsuak dira.

### Berrerabilpena

Material edo produktu bat behin baino gehiagotan erabiltzea.

### Azpiproduktua

Produkzio-jarduera baten ondorioz sortutako hondakina, beste jarduera baten "lehengai" bihurtzen dena edo bihur daitekeena.

### Uraren tratamendu primarioa

Hondakin-uren tratamendua, esekiduran dauden eduki solidoak murrizteko, sedimentazioa, flotazioa eta neutralizazioa bezalako metodoen bitartez, eta bertan homogeneizatu egiten dira tratamendu sekundarioako.

### **Uraren tratamendu sekundarioa**

Primarioaren osagarria den tratamendua, ura organismo bizidunen (bakterioak, protozooak, eta abar) ekintzapean jartzen delarik, hauek uretan disolbatuta geratzen diren substantzia organikoekin elikatzen baitira.

### **Isurketa**

Hondakinak ingurunean deskargatzea.



## 6. jarduera



| IZENBURUA                           | KOKAPENA      | KALKULATU DEN DENBORA |
|-------------------------------------|---------------|-----------------------|
| Eraispinak eta hondakinen kudeaketa | Teoriako gela | 6 ordu                |

### HELBURU OPERATIBOAK

- Ikasleek eraispenen burutzapenak ingurugiroari loturik sortzen dituen edo sor ditzakeen ondorioak baloratzen jakin dezaten lortzea.
- Beren jarduerako eta antzeko jardueretako hondakinak ezagutzea eta identifikatzea.
- Hondakin-mota bakoitzari bere ezaugarrien arabera eman behar zaion tratamendua ezagutzea.
- Bere jardueratik eratortzen diren hondakinen okerreko tratamendu batek ekar ditzakeen erantzukizunak ezagutzea eta kontuan izatea.
- Hondakin-kudeatzaileak eta beren erabilgarritasuna ezagutzea.

### BALIABIDEAK

- Gardenkiak: Eraispinak eta hondakinen kudeaketa.
- Txostena: Ereduzko deseraikuntza-proiektua.
- UD irakasten den Institutuaren planoak.
- Eranskina: Josez María González Barrosoren "Deconstrucción versus derribo masivo" izeneko ponentzia. Eraikuntza eta garapen jasangarriari buruzko I. Jardunaldiak – Bartzelona, 1996ko maiatzaren 16, 17 eta 18.
- Ondorengo argitalpenak erabiltzea gomendatzen da:
  - "Hondakin Geldoak Kudeatzeko Plana", Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1994.  
Eusko Jaurlaritzaren 1994. urteko Hondakin Geldoak Kudeatzeko Planaren azalpena egiteko gardenkiak landu dira.  
Era berean, interesgarria izango litzateke Hondakin Geldoak Kudeatzeko Planean barne hartzen diren eta jarduera honetan zuzenean aplikatzekoak diren ondorengo taulak erabiltzea:
    1. taula, hondakin-sortzaileen sektoreen arabera sailkapenarekin.
    2. taula, hondakinen kodifikazioarekin.
    3. taula, zonen arabera taldeketekin.
    8. taula, eskualde bakoitzean sortzen diren hondakin berrerabilgarrien kantitatearekin.
    9. taula, eskualde bakoitzean sortzen diren hondakin geldoen kantitatearekin.
    15. taula, I. mugapen-maila gainditzen duten zabortegekin.
    16. taula, II. mugapen-maila gainditzen duten zabortegekin.
    8. kapitulua, eskualde-planoak, gaur egungo zabortegeien kokalekua eta Hondakin Depositatu Alternatiboen (HDA) etorkizuneko kokalekua adieraziz.
    - HDA baten funtzionamendu-eskema orokorra erakusten duen krokisa.
  - "Ingurugiro Legeriaren eskuliburu praktikoa euskal industriarako", IHOBE.
  - "Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Birziklapenaren Katalogoa", IHOBE.

## METODOLOGIA

1. Suposizio praktikoa UD irakatsiko den institutuaren ezaugarrietara egokitu eta gero, talde bakoitzari beronen kopia bat emango zaio. Talde bakoitzak pertsona bat bozeramaile-koordinatzaile izendatuko du (hau 2. jarduerako pertsona bera izan daiteke edo txandaka egin daiteke). Bozeramaile horrek taldean aztertu eta eztabaidatu den guztia idatziko du, eta horren guztiaren kopia bere taldekideei emango die.
2. Jarduerari hasiera emateko, eraispenei eta hondakinen kudeaketari buruzko erakusketa bat egingo da (gardenkiak erabiliz).
3. Ereduzko deseraikuntza-proiektuaren txostena erabiliz, suposizio praktikoa lantzeari ekingo zaio. Hau 2. jardueraren jarraipena izango da, baina dagokion eraispen eta hondakin kentzerako (deseraikuntzarako) prozesua sakonduz.  
Suposizioaren enuntziatua osatzeko, irakasleak, UD irakasten den institutuaren planoak eta ezaugarriak oinarritzat hartuz, ezkutuan egoteagatik ikasleak identifikatu ezin dituen obra-partida posibleen existentzia azpimarratuko du. Une hau aprobetxatuko da azterlanaren xede den Institutuaren eraikuntzan barne hartu ez den eta bere ezaugarriengatik interesgarria izan daitekeen materialen bat sartzeko (amiantoak, beira-zuntza edo mineralak, poliestireno hedatua, eta abar).

### ONDOKOA ESKATZEN DA:

- 4 pertsonaz osatutako taldetan, egon daitezkeen eraispen-sistemen azterlan konparatibo bat egitea, ingurugiroa gehien errespetatzen duena aukeratuz.
- Eraikin berri berriz erabil daitezkeen material-partidak adieraztea.
- Birzikla daitezkeen material-partidak adieraztea, birziklapen hori burutzen duten enpresak aurkituz.
- Eraispeneko gainontzeko materialak geldotan eta arriskutsutan sailkatu eta taldekatzea.
- Zentrotik gertuen dagoen hondakin geldoen zaborteia aurkitzea, hondakin geldoak bertara eramateko.
- Hondakin arriskutsuak kudeatzen dituzten enpresen zerrenda lortzea.

Lan-taldeek aurreko atala behar bezala garatu ahal izateko Eusko Jaurlaritzaren 1994. urteko Hondakin Geldoak Kudeatzeko Planaren lehen nagusien azalpena egingo da (gaineratzen diren gardenkiak erabiliz), ikasleek berau erabiltzen jakin dezaten.

“Ingurugiro Legeriaren eskuliburu praktikoa euskal industriarako” delakoaren sarbideak ere aipatuko dira, taularen lehen zatia betetzeko beharrezkoak izan daitezkeen datuak aurkitzeko xedez. Izan ere, taularen zati horretan azterlanaren xede den Institutuan aurkitzen diren eraispen-materialak adierazten dira, bai eta hauei emango zaien destinoaren arabera egingo den sailkapena ere.

Jarduera honek izango duen sei orduko iraunaldian zehar unerik egokiena bilatu beharko da (ikasleen aurrerapena kontuan izanik) klaseari “Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Birziklapenaren Katalogoa” nola erabiltzen den azaltzeko. Katalogo hau ikasleentzat oso erabilgarria izango da taularen bigarren zatia betetzeko. Izan ere, taularen bigarren zati horretan, horretarako egokiak diren materialen birziklapena burutu dezaketen enpresen izenak eta aztergai dugun eraikinean aurki daitezkeen hondakin arriskutsuen kudeatzaileak adieraziko dira.

## EBALUAZIOA

### JARDUERAK

- Suposizio praktikoaren ebazpena.
- Informazio osagarria bilatzea.

### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Dokumentuetatik ateratzen diren funtsezko kontzeptuen laburpena.
- Txostena oso-osorik eta behar bezala lantzea (zabalerari, edukiari eta aurkezpenari dagokienez).





## IRAKASLEENTZAT PROPOSATU DEN ADIBIDEA

### SUPOSIZIO PRAKTIKOA: SANTURTZIKO ERAIKUNTZAREN BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTURA (BHI) EGOKITUKO DEN DESERAIKUNTZARAKO EDO GAIKAKO ERAISPENERAKO PROIEKTUA

Santurtziko eraikuntzaren Bigarren Hezkuntzako Institutura (BHI) eraitsi eta bota beharra dago, Eraikuntza eta Obra Zibilaren arloari loturik dauden lanbideen irakaskuntza burutzen den zentro baten beharretara hobeto egokituko den eraikin berri bat eraikitzeko.

Eraispene-mota desberdinen analisia eta azterlan konparatiboa egin ondoren, eta kalitateari eta ingurugiroa errespetatzeari dagokienez eraikuntzan dauden joera berrietara egokitzeko xedez, eraikinaren gaikako eraispena egitea aukeratu da.

Eraikuntzaren Institutuaren deseraikuntza-azterlana lan-taldeetan egitea, ondoko atal hauei arreta berezia eskainiz:

- Berriz erabiliak izan daitezkeen materialen partida.
- Birzikla daitezkeen materialen partida, birziklatze hori gauzatzen duten enpresak aurkituz.
- Eraispeneke gainontzeko materialak geldotan eta arriskutsutan sailkatu eta taldekatzea.
- Eskualdean egon daitezkeen zabortegeiak aurkitzea, hondakin geldoak bertara eramateko.
- Hondakin arriskutsuak kudeatzen dituzten enpresen zerrenda lortzea.

Ezkutuan dauden obra-unitateetan erabiltzen diren materialei buruzko espekulazioak saiheste-ko, ondoren adierazten diren zehaztapenak kontuan izango dira:

- Teilapeko isolamendua: duela gutxi egin da, estalkian agertu ziren itotiak konpontzeko egin zen konponketa aprobetxatuz. Poliuretanozko aparra erabili zen.
- Isolamendua kanpoko itxituren ganbaretan: 4 cm-ko poliestireno hedatuko plakak.

Deseraikuntza burutzen den bitartean aurki ditzakegun ekipamenduen destinoari buruzko iriz-pideak bateratzeko helburuarekin:

- Gorde egingo dira, Institutuaren sotoan biltegitratuz, Institutu berrian irakatsiko diren moduluetakoa makinaria, bitarteko lagungarri eta tresneria guztiaren aldamenean.
- Institutuan geratzen diren Lehen Irakaskuntzako Eskolako ekipamenduak inbentarioan baja emanda geratuko dira, eta zaborretara botako dira.
- Gela, bulego, areto eta abarretako altzariak ahal den neurrian aprobetxatu egingo dira (beren kontserbazio-egoera kontuan izanik, noski).
- Zentroko egoitza desberdinetan biltegitratuta dauden bulego-ekipamenduak zaharkitu-tzat hartuko dira eta zaborretara botako dira.

## OBRA-UNITATEEN ETA MATERIALEN SAILKAPENA ETA KUDEAKETA DESERAIKUNTZA-PROIEKTUETAN

(Adibidea: Santurtziko Eraikuntzaren Institutua)

| OBRA-UNITATEA                | MATERIALA         | BERRE-RABIL<br>DAITEKE | BIRZIKLAGARRIA |                         | BERARIAZKO TRATAMENDUA |                         | BERARIAZKO<br>TRATAMEN-<br>DURIK GABE |
|------------------------------|-------------------|------------------------|----------------|-------------------------|------------------------|-------------------------|---------------------------------------|
|                              |                   |                        | BAI/EZ         | ENPRESA BIRZIKLATZAILEA | BAI/EZ                 | ENPRESA BIRZIKLATZAILEA |                                       |
| Teila kurbatua               | Zeramikoa         |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Sare asfaltikoa              | Bituminosoa       |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Kanpoko leihoak              | Aluminio          |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Kanpoko ateak                | Aluminio          |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Kanpoko ate baskulatzailerak | Burdina           |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Euri-zorrotenak              | PVC               |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
|                              | Burdinurtua       |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Sotoko leihoen burdinsareak  | Burdina           |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Pertsianak                   | PVC               |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Pertsiana-kaxak              | Zura              |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Banaketa-manparak            | Zura              |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
|                              | Burdina           |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Banaketa-tabikeak            | Adreilu zeramikoa |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Eskubandak                   | Zura              |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
|                              | Burdina           |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Erradiadoreak                | Burdina           |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Berogailu elektrikoak        |                   |                        |                |                         |                        |                         |                                       |
| Komun-ontziak                | Zeramikoa         |                        |                |                         |                        |                         |                                       |

**OBRA-UNITATEEN ETA MATERIALEN SAILKAPENA ETA KUDEAKETA DESERAIKUNTZA-PROIEKTUETAN**

(Adibidea: Santurtziko Eraikuntzaren Institutua)

| OBRA-UNITATEA           | MATERIALA            | BERRE-<br>RABIL<br>DAITEKE | BIRZIKLAGARRIA |                         | BERARIAZKO TRATAMENDUA |                         | BERARIAZKO<br>TRATAMEN-<br>DURIK GABE |
|-------------------------|----------------------|----------------------------|----------------|-------------------------|------------------------|-------------------------|---------------------------------------|
|                         |                      |                            | BAI/EZ         | ENPRESA BIRZIKLATZAILEA | BAI/EZ                 | ENPRESA BIRZIKLATZAILEA |                                       |
| Kanilak                 | Letoia               |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Ur-tutueria             | Kobrea               |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                         | Burdina              |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Hustubideak             | PVC                  |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                         | Burdina              |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                         | Beruna               |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Fuel-olioaren depositua | Burdina              |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Berokuntza-galdara      | Burdina              |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                         | Zeramiko erregogorra |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Berokuntza-tutueria     | Burdina              |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Koadro elektrikoak      | Burdina              |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                         | Kableak              |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                         | Osagaiak             |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Banaketa-kableak        | Kobrea               |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Argi-ekipoa             | Burdina              |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Lanparak                | Goriak               |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                         | Fluoreszenteak       |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Suitzalgailuak          |                      |                            |                |                         |                        |                         |                                       |

## OBRA-UNITATEEN ETA MATERIALEN SAILKAPENA ETA KUDEAKETA DESERAIKUNTZA-PROIEKTUETAN

(Adibidea: Santurtziko Eraikuntzaren Institutua)

| OBRA-UNITATEA                                                                     | MATERIALA             | BERRE-<br>RABIL<br>DAITEKE | BIRZIKLAGARRIA |                         | BERARIAZKO TRATAMENDUA |                         | BERARIAZKO<br>TRATAMEN-<br>DURIK GABE |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|----------------------------|----------------|-------------------------|------------------------|-------------------------|---------------------------------------|
|                                                                                   |                       |                            | BAI/EZ         | ENPRESA BIRZIKLATZAILEA | BAI/EZ                 | ENPRESA BIRZIKLATZAILEA |                                       |
| Kristalak                                                                         | Beira                 |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Polikarbonatoa                                                                    | Polikarbonatoa        |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Estalki-isolamendua                                                               | Poliuretanozko aparra |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Kanpoko ganbararen<br>isolamendua                                                 | Poliestireno hedatua  |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Gelako mahaia                                                                     | Burdina               |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                                                                                   | Zura                  |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Aulkiak eta aulkitxoak                                                            | Burdina               |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                                                                                   | PVC                   |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                                                                                   | Tapizatua             |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Armairuak                                                                         | Zura                  |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                                                                                   | Burdina               |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Takilak                                                                           | Burdina               |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Ordenadoreak                                                                      |                       |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Bulego-ekipamendua:<br>Multikopistak, Faxe,<br>Erretroproiektorea,<br>Idazmakinak |                       |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                                                                                   |                       |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                                                                                   |                       |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
|                                                                                   |                       |                            |                |                         |                        |                         |                                       |

## OBRA-UNITATEEN ETA MATERIALEN SAILKAPENA ETA KUDEAKETA DESERAIKUNTZA-PROIEKTUETAN

(Adibidea: Santurtziko Eraikuntzaren Institutua)

| OBRA-UNITATEA                           | MATERIALA | BERRE-<br>RABIL<br>DAITEKE | BIRZIKLAGARRIA |                         | BERARIAZKO TRATAMENDUA |                         | BERARIAZKO<br>TRATAMEN-<br>DURIK GABE |
|-----------------------------------------|-----------|----------------------------|----------------|-------------------------|------------------------|-------------------------|---------------------------------------|
|                                         |           |                            | BAI/EZ         | ENPRESA BIRZIKLATZAILEA | BAI/EZ                 | ENPRESA BIRZIKLATZAILEA |                                       |
| Pintura plastikoa                       |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Agoarras minerala                       |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Agoarras-ordezkatzailea                 |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Berniz zigilatzailea                    |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Pintura esmaltea                        |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Gotele-zakuak                           |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Linazi-olioa                            |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Konpresoree-<br>tarako olio             |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Motoretarako olio                       |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Dispertsio urtsuko<br>itsaski binilikoa |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Lisiba                                  |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Desugertzaile<br>kontzentratua          |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Garbitzaile<br>deskoipeztatzailea       |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Erretzeko alkohola                      |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |
| Etiketarik gabeko txanbilak             |           |                            |                |                         |                        |                         |                                       |

## OBRA-UNITATEEN ETA MATERIALEN SAILKAPENA ETA KUDEAKETA DESERAIKUNTZA-PROIEKTUETAN

[illegible]

*a*

## 6. jarduera



|                                                            |                                                                                                                           |                                                                                                                               |
|------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IZENBURUA</b><br>Eraispenak eta<br>hondakinen kudeaketa | <br><b>KOKAPENA</b><br>Teoriako<br>gela | <b>KALKULATU DEN DENBORA</b><br>6 ordu<br> |
|------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

### HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Eraispenen burutzapenak ingurugiroari loturik sortzen dituen ondorioak baloratzea.
- ☞ Beren jarduerako eta antzeko jardueretako hondakinak ezagutzea eta identifikatzea.
- ☞ Hondakin-mota bakoitzari bere ezaugarrien arabera eman behar zaion tratamendua ezagutzea.
- ☞ Bere jardueratik eratortzen diren hondakinen okerreko tratamendu batek ekar ditzakeen erantzukizunak ezagutzea eta kontuan izatea.
- ☞ Hondakin-kudeatzaileak eta beren erabilgarritasuna ezagutzea.

### GARAPENA

Ondoko txostena irakurtzen hasiko zarete: Ereduzko deseraikuntza-proiektua “Eraikuntza eta Obra Zibilaren” arlorako.

Suposizio praktikoa 2. jardueraren jarraipena izango da, baina dagokion eraispen eta hondakin kenterako (deseraikuntzarako) prozesua sakonduz.



ONDOKOA ESKATZEN DA:

- 4 pertsonaz osatutako taldetan, egon daitezkeen eraispen-sistemen azterlan konparatibo bat egitea, ingurugiroa gehien errespetatzen duena aukeratuz.

Ondoren, ondoko taula beteko duzue: “Obra-unitateen eta materialen sailkapena eta kudeaketa deseraikuntza-proiektuetan”, eta horretarako beharrezkoa izango da:

- Eraikin berrian berriz erabil daitezkeen material-partidak adieraztea.
- Birzikla daitezkeen material-partidak adieraztea, birziklapen hori burutzen duten enpresak aurkituz.
- Eraispeneko gainontzeko materialak geldotan eta arriskutsutan sailkatu eta taldekatzea.
- Zentrotik gertuen dagoen hondakin geldoen zabortegia aurkitzea, hondakin geldoak bertara eramateko.
- Hondakin arriskutsuak kudeatzen dituzten enpresen zerrenda lortzea.

ERAISPENAK ETA HONDAKINEN KUDEAKETA







## 1994. URTEKO HONDAKIN GELDOAK KUDEATZEKO PLANA

### FASEAK

#### HONDAKINEN INBENTARIOA

- Hondakinak sortzen dituzten industri jardueren sailkapena.
- Sortzen diren hondakinen sailkapen kodifikatua.

#### ZABORTEGIEN ANALISIA

- Egungo zabortegeien analisi geomorfologikoa. I. mugapen-maila.
- Kokapen eta ezaugarritzerako analisisa. II. mugapen-maila.
  - Zona-taldeketaketa.
  - Produktore handien azterketa zonen arabera.
  - Sortzen diren eskonbroei buruzko azterlana zonen arabera.
  - Hondakinen azterlana zonen arabera: industriako hondakin geldoak, geldoak, hiri-hondakinekin pareka-garriak, berrerabilgarriak.

ZONAKO ISURKETA-  
PREMIAK

#### HONDAKINEN TIPIFIKAZIOA

- Sortutako lixibiatuen arabera.

#### EKINTZA-PLANA

- Zabor-bilketarako Udal Zerbitzuen zabalkuntza bultzatu eta koordinatzea.
- Birziklapena bultzatu eta koordinatzea.
- Isurketa kontrolaturako sistemak sustatzea.
- Zona degradatuak errekuaratzea.
- Minimizazioa, birziklapena eta aprobetxamendua bultzatzea.
- Hondakinak kudeatzeko araudia lantzea.

## TXOSTENA

### EREDUZKO DESERAIKUNTZA-PROIEKTUA, ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILAREN ARLORAKO

#### 1. PROIEKTUAREN LANTZEA

Deseraikuntza-proiektu baten lantzea beste edozein obra-motaren exekuzio-proiekturen antzekoa da, baina deseraikuntzakoan, gainera, hondakinen kudeaketa ere barne hartu behar da.

Proiektua ingurugiroari loturiko planteamenduekin bat datorrela egiaztatu ahal izateko, hondakinen helburuko instalazioak:

- A) Behar bezala egiaztatuta dagoen instalazio bat izan behar du, berariazko tratamendu bat eskatzen duten materialak barne hartzen direnean.
- B) Baimendutako zabortegi bat izan behar du, harrizkoak diren hondakin geldoak barne hartzen direnean.

Hau guztiaz gain, ingurugiroari loturiko araudia zehatz-mehatz betetzea ezinbestekoa izango da. Mota honetako proiektuetan, era berean, obraren etekina, garraioa eta eraikina osatzen duten elementu desberdinen salmentaren ondoriozko diru-berreskuraketa egiaztatzea komenigarria izango litzateke.

Puntu hau garrantzitsua, gaur egun gai honi buruzko datu-baserik ez eta deseraikuntza-lan hauetarako ereduzko etekinei buruzko txostenik ere ez daudelako.

#### 2. DESERAIKUNTZA-PROZESUA

Eraitsi eta hondakinak kentzea deitu ohi den deseraikuntza-prozesuaren helburua bertan pilatzen diren materialak tratatzea da, hauetariko bakoitzari emango zaion destinoaren arabera kategoriatan sailkatu eta taldekatzeko.

##### 2.1. BIRZIKLATU ETA/EDO BERRERABIL DAITEZKEEN MATERIALAK

###### 2.1.1. BEIRA ETA BERE DERIBATUAK

Material hauen birziklapena egiteko burutu behar den lana ondokoa da: orriak desmuntatzea, oreak eta silikonak kentzea, eta beirak ebakitzea garraioa erosoagoa izan dadin.

###### 2.1.2. AROTZIA

Itxieretako orriak ateratzea eta markoetatik orriak ainguratzeko erabili diren elementuak eskuz kentzea, birziklatzeko.

###### 2.1.3. INSTALAZIOAK

Obra bateko instalazioetan ohikoak diren materialak:

- Iturgintza: kobrea, beruna, burdina, letoia eta altzairu herdoilgaitza.
- Saneamendua: saneamendu-sarearekin erlazionaturik dagoen PVCa.
- Elektrizitatea: kobrezko kableak oro har.

Era berean, ondoko hauek ere kontuan izan beharko dira: kanilak, burdinurtuzko bainuontziak, altzairu herdoilgaitzezko harraskak, eta ur-sanitarioaren berogailuak.

Materialen eta osagaien destinoa:

- Muntagak eta barne-banaketa, txatarrerako.
- Kanilak, berriro erabiltzeko (hauek egoera onean baldin badaude).
- Harraskak, lehengaiaren berreskuraketa.
- Egoera onean dauden berogailuak, berriro erabiltzeko. Egoera txarrean daudenak txatarrerako.
- Egoera onean dauden bainuontziak, berriro erabiltzeko. Egoera txarrean daudenak txatarrerako.



- PVC, birziklatzeko.
- Kable elektrikoak, birziklatzeko.

#### 2.1.4. ESTALDURAK

- Jatorri naturala dutenak: kortxoak, parketa, ehunak, eta abar. Birziklatzeko.
- Jatorri sintetikoak dutenak: gomak, kautxua, PVC, ehunak, eta abar. Birziklatzeko.

#### 2.1.5. ESKUBANDAK ETA BABES-ELEMENTUAK

- Burdinazko eta zurezko materialak. Bi kasuetan, destinoa birziklatzea da.

### 2.2. BERARIAZKO TRATAMENDU BAT EGITEA ESKATZEN DUTEN MATERIALAK

#### 2.2.1. ISOLAMENDUAK

Materialaren morfologiak jatorri zeramikoa duen euskarriarekin isurketa librea egitea eragozten du, eta beraz, hauek banantzeko soluzioren bat aurkitu beharko litzateke. Arazoa material hauek nahastuta aurkitzen direla da; material hauek birziklatzearen merkatuan badute irtenbiderik, baina bananduta baldin badaude. Euskarria zeramikazkoa edo harritzkoa da eta, beraz, ez du inolako poluzio-arriskurik sortzen, baina isolamendua berriz erabiltzea eragozten du, berau adreilutik banantzeak ekar dezakeen kostu handiak eragiketa bideraezin bihurtzen duelako.

### 2.3. BERARIAZKO TRATAMENDUREN BAT EGITEA ESKATZEN EZ DUTEN MATERIALAK

Eraikuntzan erabiltzen den material-bolumenik handienaren jatorria ondoko hau da: harria, hormigoia, adreiluak, gresa, terrazoak, komun-ontziak, harri naturalak, zeramikazko alikatatuak, igeltsuak eta mortairuak. Material hauek, ingurugiro-agentean aurrean azaltzen duten egonkortasuna dela medio, arazo bakar bat dute: beren bolumena, hala bolumen erreala nola harrotasun-bolumena. Mota honetako zakarrak botatzeko zabortegi kontrolatu ugari dago.

Material hauek guztiak, xehatze-prozesu baten ondoren, errepideak, lubetak eta abar eraikitze-ko ere erabilgarriak izan daitezke.

## 3. HONDAKINEN KUDEAKETA

### 3.1. BIRZIKLA DAITEZKEEN MATERIALAK

- 3.1.1. Beirak: birziklapena, enpresa hartzaile batean. Baldintza batekin: garbi egotea, masilarik eta antzeko produkturik gabe.
- 3.1.2. Zura: birziklapena, berau xehatzera eta taula aglomeratuak fabrikatzera dedikatzen den enpresa batean. Punta eta iltzerik gabe egon behar du.
- 3.1.3. Metalezko materialak: burdina, aluminioa, kobrea, beruna. Birziklapena, enpresa hartzaile batean.
- 3.1.4. PVC: birziklapena, enpresa hartzaile batean.
- 3.1.5. Kable elektrikoak: multzoa osorik entregatu daiteke, edo eroalea eta isolatzailea bananduta. Bi kasuetan birziklapena egin daiteke, enpresa hartzaile batean.

### 3.2. BERARIAZKO TRATAMENDU BAT EGITEA ESKATZEN DUTEN MATERIALAK

- 3.2.1. Isolamenduak: ezin dira errausketa-planta batera eraman, zeramikazko hondarrak dituztelako.
- 3.2.2. Amiantoa.

### 3.3. BERARIAZKO TRATAMENDUREN BAT EGITEA ESKATZEN EZ DUTEN MATERIALAK

Harritzkoak diren materialak, xehatze-prozesu baten ondoren, azpiegitura-obretan erabil daitezke, hala nola: itsas-erakuntzak, lubetak, errepideen azpifaseak, eta abar.

#### 4. AMAIERAKO EMAITZA

Gaikako eraispen bat egiten denean bi ikuspuntu kontuan izan behar dira: alde batetik ekonomiaren ikuspegia, eta bestetik ingurugiroaren ikuspegia.

Ekonomiaren ikuspegitik, eraikin normal baten gaikako eraispena egiteak diru-kostu bat dakar. Nolanahi ere, adierazi den kostu hori neurri handi batean murriztuko da eraikinaren morfologia soila baldin bada, hala nola: altuera txikia izatea eta eraikuntza-elementuak eskuragarri egotea, adibidez begibistan eta eskuragarri dauden zorrotenak eta instalazioak.

| <b>GAIKAKO ERAISPENA</b> (Ikuspegi ekonomikoa) |                            |
|------------------------------------------------|----------------------------|
| KOSTUAK                                        | MOZKINAK                   |
| 1. Langile-kostuak.                            | 1. Material-salmenta.      |
| 2. Garraio-kostua.                             |                            |
| 3. Material-bilketaren kostua.                 | Oharra: ikus prezio-taula. |

| <b>GAIKAKO ERAISPENETATIK DATOZEN MATERIALEN SALNEURRIA (1996. URTEA)</b> |                                        |           |                                 |
|---------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------|-----------|---------------------------------|
| MATERIALA                                                                 | BILTZEKO MODUA                         |           | PREZIOA                         |
| Beira                                                                     | Garbia (Masila eta silikonarik gabe).  |           | 4 pta/Kg                        |
| Zura                                                                      |                                        |           | Entregatzeagatik ordaintzen da. |
| Burdina                                                                   | Zikina                                 |           | 8,5 pta/Kg                      |
|                                                                           | Garbia                                 |           | 9,5 pta/Kg                      |
| Aluminioa                                                                 | Zikina                                 |           | 120 pta/Kg                      |
|                                                                           | Garbia eta moztuta.                    |           | 203 pta/Kg                      |
| Kobre                                                                     |                                        |           | 230 pta/Kg                      |
| Beruna                                                                    |                                        |           | 67 pta/Kg                       |
| Beste zenbait metalezko objektu.                                          | Kanilak (Letoia, eta abar).            |           | 160 pta/Kg                      |
|                                                                           | Altzairu herdoilgaitza.                |           | 90 pta/Kg                       |
| PVC                                                                       |                                        |           | 8 pta/Kg                        |
| Kable elektrikoak.                                                        | Zikina                                 |           | 100 pta/Kg                      |
|                                                                           | Berreskuratutako materialaren arabera. | Kobrea    | 280 pta/Kg–25 pta/Kg            |
|                                                                           |                                        | Aluminioa | 150 pta/Kg–25 pta/Kg            |

Ingurugiroaren ikuspuntutik, materialak beren destinoaren arabera banantzea bideragarria izan daiteke, baina badaude batzuk material desberdinen nahasketa direnak, eta hauek birziklatzea zaila da. Material desberdinak nahastuta dituzten material hauek birziklatzera dedikatzen den enpresarik ez dago.

Une honetan badaude zenbait ikerketa-zentro eraikuntza-material jakin batzuk fabrikatzeko lehen-gai gisa azpiproduktu batzuk erabiltzea aztertzen ari direnak.



| BALORAZIO-PROIEKTUAK                              |                              |                                |
|---------------------------------------------------|------------------------------|--------------------------------|
| HONDAKIN NAGUSIA                                  | MATERIAL BALORIZATUA         | IKERKETA-ZENTROA               |
| Paper-fabrikako lokatzak.                         | Adreilu arina.               | Arquitectura del Vallés (UPC). |
| Gainazal-akaberen industrietako lokatzak.         | Zuntz isolatzaileak.         | Geologikoak (UB).              |
| HHSen zepak.                                      | Adreilu trinkoa.             | Gironako Politeknikoa.         |
| Taladrinak                                        | Agregakin hedatua.           | Bide-ingeniariak (UPC).        |
| Hondakin-uren araz-tegietako lokatzak (Ecobrick). | Bloke isolatzaile termikoa.  | Arquitectura del Vallés (UPC). |
| Galategietako hareak.                             | Panel isolatzaile akustikoa. | Geologikoak (UB).              |

| MATERIALEN SAILKAPENA DESERAIKUNTZA-PROZESU BATEAN                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                         |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| BERRERABILI ETA/EDO BIRZIKLA DAITEZKEEN MATERIALAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | BERARIAZKO TRATAMENDURIK GABEKO MATERIALAK                                                                                                                                                                                                                                                                                          | BERARIAZKO TRATAMENDUA DUTEN MATERIALAK                                                                                                                                                                                                                 |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>– Beira eta bere deribatuak</li> <li>– Zurgintza</li> <li>– Instalazioak               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kanilak</li> <li>• Bainu-ontziak</li> <li>• Altzairu herdoilgaitzezko harraskak.</li> <li>• Berogailuak</li> <li>• Kable elektrikoak.</li> </ul> </li> <li>– Estaldurak               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Naturalak</li> <li>• Sintetikoak</li> </ul> </li> <li>– Eskubandak eta babes-elementuak</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>– Harrizkoak               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hormigoia</li> <li>• Adreilua</li> <li>• Gresa</li> <li>• Terrazoak</li> <li>• Komun-ontziak</li> <li>• Harri naturala</li> <li>• Alikatatu zeramikoak</li> <li>• Igeltsuak</li> <li>• Mortairuak</li> </ul> </li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>– Isolamenduak               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Poliuretanoa</li> <li>• Poliestireno hedatua</li> <li>• Beira-zuntza</li> <li>• Harkaitz-zuntza</li> <li>• Amiantoa</li> </ul> </li> </ul> |

## PROPOSATZEN DEN JARDUERA

### SUPOSIZIO PRAKTIKOA

..... **Institutura**  
**egokitutako deseraikuntza edo gaikako eraispenerako proiektua.**

Institutuaren eraikina eraitsi eta botatzea beharrezkoa da, Eraikuntza eta Obra Zibilaren arloarekin erlazionatuta dauden lanbideak irakasteko zentro baten beharretara hobeto egokituko den eraikin berri bat eraikitzeko.

Burutu daitezkeen eraispen-mota desberdinen analisisa eta azterlan konparatiboa egin ondoren, eta kalitateari eta ingurugiroarekiko errespetuari dagokienez eraikuntzan dauden joera desberdinetara egokitze xedez, eraikinaren gaikako eraispen bat egitea erabaki da.

ONDOKOA ESKATZEN DA:

Lan-talde bakoitzak Eraikuntzaren Institutuaren deseraikuntzarako azterlana egitea, ondoren adierazten diren alderdiei arreta berezia eskainiz:

- Berriz erabiliak izan daitezkeen materialen partida.
- Birzikla daitezkeen materialen partida, birziklapen hori gauzatzen duten enpresak non dauden kokatuz.
- Gainontzeko materialak geldo eta arriskutsutan sailkatu eta taldekatzea.
- Eskualdean egon daitezkeen zabortegeiak lokalizatzea, hondakin geldoak bertara lekualdatzeko.
- Hondakin arriskutsuak kudeatzen dituzten enpresen zerrenda lortzea.

Ezkutuan aurkitzen diren obra-unitateetan erabil daitezkeen materialei buruzko espekulazioak saihesteko xedez, ondorengo zehaztapen hauek kontuan izango dira:

Teila azpiko isolamendua:

.....

.....

.....

Kanpoko itxieren ganbaretako isolamendua .....

.....

.....

.....

— .....

.....

.....

.....

— .....

.....

.....

.....

Deseraikuntza burutzen dugunean aurki ditzakegun ekipamendu desberdinen destinoari buruz irizpideak bateratzeko:

Gorde egingo dira, .....


Egungo ekipamenduetan biltegitratuz .....

Ikasgelako, bulegoetako, aretoetako eta  
beste zenbait geletako altzariak, .....

Biltegitratuta dauden bulego-ekipamenduak .....



## 6. jardueraren eranskina



### I JORNADAS: CONSTRUCCIÓN Y DESARROLLO SOSTENIBLE

Barcelona, 16, 17 y 18 de Mayo de 1996

#### DECONSTRUCCIÓN VERSUS DERRIBO MASIVO

**Josep Maria González Barroso**

Institut de Tecnologia de la Construcció de Catalunya (ITEC)

Ahora que se habla tanto de la importancia de respetar el medio ambiente y de preservar la naturaleza, a menudo los técnicos de la construcción nos planteamos estas preguntas: ¿cuál es la construcción más respetuosa y adecuada con el medio? ¿y qué tipo de construcción es compatible con el desarrollo sostenible?

Si queremos contestar estas preguntas de forma inmediata deberemos recurrir a los argumentos tópicos que, en gran medida, ya se han incorporado en los procesos de fabricación de la industria: la utilización de materiales y productos que no sean contaminantes, que no consuman grandes cantidades de energía y recursos naturales, y que originen pocos residuos. Bien, aunque ello es cierto, en realidad no hemos contestado las preguntas iniciales, y difícilmente lo haremos si abordamos el problema de manera tan abstracta.

Desde hace un tiempo, en el ITEC nos dedicamos al estudio de estos temas. En el transcurso de los trabajos hemos utilizado unos argumentos que hacen posible contestar las preguntas que nos hacéis. Se trata de relacionar las dos ideas siguientes:

- a) Los sistemas actuales de demolición son poco adecuados con el objetivo de minimizar los residuos que se originan en la construcción, porque lo que hace falta no es derribar los edificios como se hace sino desconstruirlos.
- b) La desconstrucción puede ser también un motor de evolución del conocimiento técnico; nos referimos a la capacidad de proponer y determinar las técnicas y los sistemas de construcción más adecuados con el medio ambiente.

Entonces, creemos que el tipo de construcción más respetuosa con el medio es aquella que es más compatible con la desconstrucción, es decir, la construcción de la desconstrucción.

Pero antes de desarrollar este nuevo concepto nos detendremos a explicar lo que es la desconstrucción: sus objetivos, las características y las ventajas.

#### La desconstrucción

Definiríamos la desconstrucción como el conjunto de acciones de desmantelamiento de una construcción que hacen posible un alto nivel de recuperación y aprovechamiento de los materiales, para reincorporarlos nuevamente en las construcciones. Su finalidad es disminuir el impacto ambiental de las actividades del conjunto del sector, principalmente sobre la reducción de residuos inertes que innecesariamente se incorporan a los vertederos.

Si los residuos de demolición se reciclan y valoran de manera que quedan incorporados en una nueva construcción, además habremos conseguido otro objetivo que también beneficia el medio: reduciremos el impacto que se origina en la fabricación de nuevos productos, porque no hará falta fabricar tantos.

La desconstrucción no tiene un solo modelo de definición. En realidad, admite diversos modelos y grados de intensidad en función de los objetivos previstos y de las características de cada caso concreto que se ejecuta. Pero lo que sí es común a todos los modelos es que es un proceso de desmontaje gradual y selectivo, en el cual hay que utilizar diversos métodos y técnicas de forma coordinada y complementaria, teniendo en cuenta las posibilidades reales nuestro contexto técnico y económico.<sup>8</sup>

Las características del proceso de ejecución material de la desconstrucción, en determinados edificios, son diferentes de las de una demolición habitual. Aunque, en general, es una medida prioritaria proceder a la desconstrucción del edificio en sentido inverso al de su construcción lógica. Entonces, el proceso se desarrollará planta por planta -en sentido descendente- y se iniciará con la retirada de los equipos industriales y el desmontaje de la cubierta, para acabar con el último pavimento o cimiento.

En consecuencia, la desconstrucción descompone el proceso de demolición del edificio en las siguientes etapas:

- a) Desmontaje de los elementos arquitectónicos recuperables que no forman parte de la estructura del edificio ni son soporte de otro elemento.
- b) Desmontaje de los materiales y elementos reciclables, que como en la etapa anterior, no tienen función de soporte.
- c) Desmontaje de los elementos que forman parte de la estructura o son soporte de otro, previo al apuntalamiento.
- d) Derribo masivo de la estructura del edificio, con técnicas y métodos que faciliten la selección "in situ" de los materiales para hacer más fácil la valorización posterior.

Con todo, desde el mismo proceso, hemos de facilitar la división y recogida selectiva de los residuos, con la finalidad de favorecer el reciclaje y la reutilización.

En la práctica, no se puede conseguir el aprovechamiento total de la construcción a desmantelar, porque este objetivo es poco más que una entelequia. Se trata de conseguir un alto valor de aprovechamiento de los materiales y de los elementos de la construcción, de manera que el balance del coste económico y medioambiental sea viable. O dicho de otra manera, que la demolición de edificios sea compatible con criterios de desarrollo sostenible.

#### **El aprovechamiento de los residuos de demolición**

La mayor parte de los residuos de demolición son aprovechables y sus posibilidades son diversas. En general, las clasificaremos en tres conjuntos:

- a) Reutilización de los elementos arquitectónicos, que se recuperan completos o en parte, con un mínimo de operaciones de adaptación o transformación.
- b) Reciclaje de los residuos no mayoritarios de la construcción; es decir los que no son de naturaleza pétreo: madera, metales, plásticos, etc.
- c) Reciclaje de los residuos de naturaleza pétreo que, actualmente, son los mayoritarios en la construcción: hormigones, cerámicas, piedras, etc.

La valorización de los residuos pétreos tiene una importancia capital en el aprovechamiento de los residuos de demolición en general, porque conforman más del 95% del peso de los residuos de los edificios que se derrumban.

En la desconstrucción de los edificios construidos con técnicas tradicionales, no se debe caer en la trampa de querer desmontar aquello que no ha estado pensado para hacerlo. En estos casos, se trata solamente de separar los residuos pétreos de aquellos que no lo son y dificultan su valorización como granulados. Lo que no es viable habitualmente es recuperar los residuos que no son pétreos, con la ingenua pretensión de valorizarlos.

<sup>8</sup> Se puede encontrar un desarrollo más extenso del tema en "Manual de desconstrucción" cuyo autor es el ITEC. Junta de Residuos. 1995.





## 6. jardueraren eranskina



Finalmente, sólo los residuos potencialmente peligrosos para la salud se recuperan para aislarlos del resto y proceder a un tratamiento especial o al transporte a un contenedor específico.

### La construcción de la desconstrucción

Sobre la minimización de los residuos que se originan en la edificación, el principal criterio constructivo a tener en cuenta es que la construcción más adecuada con el medio es la que ha sido pensada para ser desconstruida.

Sus características se pueden resumir en un catálogo de principios generales de construcción -aún en proceso de definición- de los cuales hemos alcanzado la eficacia<sup>9</sup>:

1. Los materiales de construcción que tienen una composición más homogénea son los que originan residuos más fácilmente valorizables.
2. La construcción formada con materiales fácilmente separables mejora las posibilidades de reutilización de los residuos de construcción.
3. La unión de adherencia de los materiales de diferente naturaleza, en general, no hace viable la valorización de los residuos de ninguno de los materiales.
4. La construcción que utiliza técnicas de unión en seco es más fácilmente desmontable que la construcción tradicional en la que la unión de los materiales se obtiene por adherencia, y por lo tanto facilita la valorización de los residuos.
5. Los criterios de coordinación dimensional facilitan el intercambio y reutilización de elementos de construcción como componentes en otras obras.
6. Los elementos de construcción hechos en taller originan menos residuos que los ejecutados en la misma obra y, además, son más fácilmente reciclables.
7. Los elementos de construcción a base de materiales tradicionales de gran sección son una solución constructiva que permite incorporar cantidades importantes de granulados reciclados de construcción.

Es evidente que casi todos los principios que hemos expuesto apuntan hacia una construcción en la cual las técnicas y los elementos son más industrializados que los que se utilizan en la construcción convencional. Ahora bien, no se trata de substituir totalmente la construcción a base de materiales y técnicas tradicionales por una construcción absolutamente industrializada, porque también hace falta considerar otros aspectos medioambientales. En cualquier caso, se han de determinar los elementos, sistemas y técnicas de construcción de forma que los aspectos medioambientales lleguen a ser una exigencia básica de diseño constructivo.

Para concluir, diremos que la desconstrucción nos permitirá reducir los residuos originados en la demolición de los edificios y por tanto su impacto ambiental. Y en consecuencia, la construcción más adecuada con el medio ha de ser la que ha sido concebida para ser desconstruida. En definitiva, la desconstrucción -que ha sido pensada para desmantelar los edificios- nos ha dado los criterios de cómo se han de construir, que era lo que buscabais al inicio del texto.

<sup>9</sup> Actualmente, estamos acabando de definir los principios generales. Así mismo, ya tenemos propuestas de soluciones constructivas concretas que ejemplifiquen algunos de estos principios. El trabajo desarrollado forma parte del Proyecto "Formación de técnicos en Medio Ambiente y Edificación" que ha sido financiado por el Programa LIFE de la Unión Europea, en el que participan el ITEC y el Col·legi d'Arquitectes de Catalunya.





## 7. jarduera



| IZENBURUA                      | KOKAPENA         | KALKULATU DEN DENBORA |
|--------------------------------|------------------|-----------------------|
| Hondakinak<br>kudeatzeko plana | Teoriako<br>gela | 2 ordu                |

### HELBURU OPERATIBOAK

- Jarduerarekin erlazionatuta dauden poluzio-mota desberdinak ezagutzea eta baloratzea (zarta, hautsa, hondakin-ura, eta abar).
- Beren jarduerako eta antzeko jardueretako hondakinak ezagutzea eta identifikatzea.
- Hondakin-mota bakoitzari bere ezaugarrien arabera eman behar zaion tratamendua ezagutzea.
- Bere jardueratik eratortzen diren hondakinen okerreko tratamendu batek ekar ditzakeen erantzukizunak ezagutzea eta kontuan izatea.
- 3 ekintza nagusiak ahal den neurrian aplikatzea: birziklapena, berrerabilpena eta murriztapena.
- Hondakin-kudeatzaileak eta beren erabilgarritasuna ezagutzea.

### BALIABIDEAK

- ◆ UD irakatsiko den Institutuaren planoak.
- ◆ Institutuan bertan egon daitezkeen beste hondakinak kudeatzeko plan batzuk.
- ◆ Fitxa: Hondakinen kudeaketa.

### METODOLOGIA

Adierazi beharra dago Hondakinak Kudeatzeko Plan honek Igeltserotza Obrei buruzko Erdi Mailako Heziketa Zikloko ikasleentzat tresna lagungarria izan nahi duela; beren lan praktikoetan sortzen dituzten hondakinen tratamendu eraginkorragoa eta ingurugiroaren gaineko praktiketara egokituagoa burutzeko xedez.

1. Ikasleek, lan-taldetan banatuta, FABRIKA OBRAK moduluaren eraikuntza-praktiketan erabiltzen diren material desberdinen xehekapena egingo dute, materialaren destinoaren arabera nola taldekatu edo banandu daitezkeen adieraziz, beti ere ondoren adierazten diren alderdi hauek kontuan izanik:
  - Minimizazioa,
  - Berrerabilpena,
  - Birziklatzea,
  - Biltegia,
  - Lantegiaren antolaketa,
  - Edukinontzien kokaera.
2. Aurreko atalari buruzko bateratze-lana egingo da, eta bertan Institutuak edukinontzi desberdinak erosteko dituen posibilitate ekonomikoak zehaztu beharko dira. Atal honen barruan

“Igeltserotzako Hondakinak Kudeatzeko Plana” definitu eta zehaztuko da, eta honek praktiketan erabilitako materialen zerrenda eta beren egoera eta/edo kontserbazioaren arabera emango zaien destinoa barne hartuko du.

(Institutuak aldi berean lanbide-arlo bereko edo beste lanbide-arlo bateko moduluak ere irakatsiko dituela pentsatzen dugu, hauek ere ingurugiro-problematika izan dezaketelako. Jakin badakigu eskura dauden baliabide ekonomikoak urriak direla eta denon artean banatu behar direla. Horregatik egokia izango litzateke irakasle-taldeak ingurugiro-politika orokor bat definitzea Institutuan, modulu desberdinentzat gida gisa baliagarria izango dena eta zentroak ingurugiroaren alorrean bere gain har ditzakeen mugak jarriko dituen. Era honetan, modulu bakoitzeko Hondakinak Kudeatzeko Planek ez lituzkete zentroaren posibilitateak gaindituko).

Ikasleek diseinatuko duten **FABRIKA OBREN** moduluaren **HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN** honek funtzionamendurako barne-araudia ezarriko beharko du gutxienez ere 3 hondakin-talderentzat, hauek emango zaien erabilera kontuan izanik:

a) Berrerabilgarriak izan daitezkeen hondakinak.

Hauek material bakoitzera destinatzen den lekuan biltegitratuko dira, beharrezkoa izanez gero beren aplikazioa burutzeko. Praktiketan gehien erabili diren materialak barne hartuko lituzke: teilak, adreilu zulodunak, adreilu trinkoak, zeramikazko eta hormigoizko blokeak, panelak, zurak, eta abar, non eta kontserbazio-egoera onean baldin badaude.

b) Birziklagarriak izan daitezkeen hondakinak.

Erabilera honetara destinatutako edukiontzian sartuko direnak, hau da, harrizko eta zeramikazko jatorria duten hondakinak barne hartuko dituen edukiontzian. Aurreko ataleko material-zerrenda berbera barne hartuko luke, baina praktikaren burutzapenean zehar hondatu edo narriatu direnak bakarrik.

c) Hondakin geldoen zabortegirako hondakinak.

Bertan, heziketa-ziklo honetako aurreko suposizioan birziklatu ezin diren edo gainontzeko heziketa-zikloetako edozeinetan birziklapenerako edukiontzi berezirik definituta ez duten hondakin guztiak biltegitratuko dira. Hona hauek sartuko dira hemen: zura, puntak, enbalajeak, eskonbroa oro har, eta abar.

Egun dauden beste kudeaketa-planen araudia errespetatuko duen Plan hori praktika-aretoan ikusteko moduan ipiniko da praktikak garatzen diren bitartean aplikatzeko.

3. Plan hau ikasle guztiek burutu beharko dute, denek dauden funtzio desberdinak burutuko baitituzte (igeltsero, ofizial, peoi, eta abar). Peoiaren funtzioak betetzen dituzten epealdian zehar hondakinak bakoitza dagokien edukiontzian botatzeko gai izan beharko dute, beti ere hondakin bakoitzari emango zaion erabilera kontuan izanik. Hondakin-kudeaketaren jarraipen-fitxa bat beteko dute, non isuritako partida desberdinak adierazteaz gain, edukiontzi desberdinetan aurkitzen diren anomaliak idatziko diren. jarraipen hau burutzeko fitxaren/partearen itxura ondoren adierazten dena izan daiteke.

## EBALUAZIOA

### JARDUERAK

- Hondakinak Kudeatzeko Plan bat lantzea.
- Hondakinak Kudeatzeko Planerako proposamenen bateratze-lana egitea.

### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Esleitzen diren erakusketa eta lanetan arreta handiz jardutea.
- Autonomia eta erantzukizunerako gaitasuna.
- Hondakinen minimizaziorako teknikak ulertzea, bai eta aplikatzea ere.

*a*

## 7. jarduera



|                                                    |                                                                                                                           |                                                                                                                               |
|----------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IZENBURUA</b><br>Hondakinak<br>kudeatzeko plana | <br><b>KOKAPENA</b><br>Teoriako<br>gela | <b>KALKULATU DEN DENBORA</b><br>2 ordu<br> |
|----------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

### HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Jarduerarekin erlazionatuta dauden poluzio-mota desberdinak ezagutzea eta baloratzea (zarrata, hautsa, hondakin-ura, eta abar).
- ☞ Beren jarduerako eta antzeko jardueretako hondakinak ezagutzea eta identifikatzea.
- ☞ Hondakin-mota bakoitzari bere ezaugarrien arabera eman behar zaion tratamendua ezagutzea.
- ☞ Bere jardueratik eratortzen diren hondakinen okerreko tratamendu batek ekar ditzakeen erantzukizunak ezagutzea eta kontuan izatea.
- ☞ 3 ekintza nagusiak ahal den neurrian aplikatzea: birziklapena, berrerabilpena eta murriztapena.
- ☞ Hondakin-kudeatzaileak eta beren erabilgarritasuna ezagutzea.

### GARAPENA

Hondakinak Kudeatzeko Plana, adierazi beharra dago Plan honek ikasleentzat tresna lagungarria izan nahi duela; beren lan praktikoetan sortzen dituzten hondakinen tratamendu eraginkorragoa eta ingurugiroaren gaineko praktiketara egokituagoa burutzeko xedez.

ONDOKOA ESKATZEN DA:

- 1.- Ikasleek, lan-taldetan banatuta, FABRIKA OBRAK moduluaren eraikuntza-praktiketan erabiltzen diren material desberdinen xehekapena egingo dute, materialaren destinoaren arabera nola taldekatu edo banandu daitezkeen adieraziz, beti ere ondoren adierazten diren alderdi hauek kontuan izanik:
  - Minimizazioa,
  - Berrerabilpena,
  - Birziklatzea,
  - Biltegia,
  - Lantegiaren antolaketa,
  - Edukinontzien kokaera.
- 2.- Institutuan irakats daitezkeen beste Heziketa Modulu batzuk badaudela kontuan izatea, dauden baliabideak banatzeko eta/edo sortutako hondakinen balizko bateraezintasunak saihesteko.
- 3.- Lan-talde bakoitzaren adierazpenen bateratze-lana egitea, HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANA behin-betiko izaeraz zehaztuko delarik.
- 4.- Gutxienez ere 3 hondakin-talderen funtzionamendurako diseinatutako FABRIKA OBREN moduluaren HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANerako araudia finkatzea, beti ere emango zaien erabilera kontuan izanik:
  - a) Berrerabilgarriak izan daitezkeen hondakinak.

Hauek material bakoitzera destinatzen den lekuan biltegiratuko dira, beharrezkoa izanez gero beren aplikazioa burutzeko. Praktiketara gehien erabili diren materialak barne hartuko lituzke: teilak, adreilu zulodunak, adreilu trinkoak, zeramikazko eta hormigoizko blokeak, panelak, zurak, eta abar, non eta kontserbazio-egoera onean baldin badaude.

b) Birziklagarriak izan daitezkeen hondakinak.

Erabilera honetara destinatutako edukinontzian sartuko direnak, hau da, harrizko eta zeramikazko jatorria duten hondakinak barne hartuko dituen edukinontzian. Aurreko ataleko material-zerrenda berbera barne hartuko luke, baina praktikaren burutzapenean zehar hondatu edo narriatu direnak bakarrik.

c) Hondakin geldoen zabortegirako hondakinak.

Bertan, heziketa-ziklo honetako aurreko suposizioan birziklatu ezin diren edo gainontzeko heziketa-zikloetako edozeinetan birziklapenerako edukinontzi berezirik definituta ez duten hondakin guztiak biltegiratuko dira. Hona hauek sartuko dira hemen: zura, puntak, enbalajeak, eskonbroa oro har, eta abar.

Egun dauden beste kudeaketa-planen araudia errespetatuko duen Plan hori praktika-aretoan ikusteko moduan ipiniko da praktikak garatzen diren bitartean aplikatzeko.

5.- HONDAKINAK KUDEATZEKO PLAN hau, Fabrika-Obretako moduluaren barruan klase praktikoetan peoi-lana burutzen duten bitartean ikasle guztiek jarraitu beharko duten gida izango da. Hondakin-mota desberdinak bakoitza beren edukinontzietan ipini beharko dituzte, beren destinoaren arabera. Hondakin-kudeaketaren jarraipen-fitxa bat beteko dute, non isuritako partida desberdinak adierazteaz gain, edukinontzi desberdinetan aurkitzen diren anomaliak idatziko diren.

**HONDAKINAK KUDEATZEKO PLANA**

HONDAKINAK

DESTINOA

Hondakin berrerabilgarriak

Hondakin birziklagarriak

Hondakin geldoen zabortegirako hondakinak

HONDAKINEN KUDEAKETA-FITXA

| IZENA      | DATA         | ORDUA | BERRERA-<br>BILGARRIAK | BIRZIKLA-<br>GARRIAK | GELDOAK |      |            |            |
|------------|--------------|-------|------------------------|----------------------|---------|------|------------|------------|
|            |              |       |                        |                      | METALAK | ZURA | PLASTIKOAK | ENBALAJEAK |
|            |              |       |                        |                      |         |      |            |            |
| Sinadura:  | Gertakariak: |       |                        |                      |         |      |            |            |
|            |              |       |                        |                      |         |      |            |            |
| Sinadura : | Gertakariak: |       |                        |                      |         |      |            |            |
|            |              |       |                        |                      |         |      |            |            |
| Sinadura : | Gertakariak: |       |                        |                      |         |      |            |            |
|            |              |       |                        |                      |         |      |            |            |
| Sinadura : | Gertakariak: |       |                        |                      |         |      |            |            |
|            |              |       |                        |                      |         |      |            |            |
| Sinadura : | Gertakariak: |       |                        |                      |         |      |            |            |
|            |              |       |                        |                      |         |      |            |            |
| Sinadura : | Gertakariak: |       |                        |                      |         |      |            |            |
|            |              |       |                        |                      |         |      |            |            |
| Sinadura:  | Gertakariak: |       |                        |                      |         |      |            |            |





## 8. jarduera



| IZENBURUA              | KOKAPENA         | KALKULATU DEN DENBORA |
|------------------------|------------------|-----------------------|
| Lehengaiak<br>erauztea | Teoriako<br>gela | 1 ordu                |

### HELBURU OPERATIBOAK

- Eraikuntzarako erabiltzen diren materialen erauzketak dituen ingurugiro-inplikazioak ezagutu eta baloratzea.
- Eraikuntzarako erabiltzen diren materialen garraioek sortzen dituzten ingurugiro-inpaktuak ezagutu eta baloratzea.
- Baliabide materialak oker ustiatzetik erator daitezkeen ondorioak ezagutu eta baloratzea.

### BALIABIDEAK

- ◆ Eraikuntzarako lehengaiaren erauzketari buruzko suposizio praktikoa.
- ◆ Eranskina: Meatzaritzako legeriaren bilduma.
- ◆ Eranskina: EAEn dauden harrobien zerrenda.

### METODOLOGIA

#### 1. SUPOSIZIO PRAKTIKOA

UDaren hasieran planteatutako suposizioarekin jarraituz, Institutu zaharraren eraispenaren ondoren eraikin berrian zein fatxada-mota erabiliko den aztertzen ari da. Harrizko material naturala erabiltzea erabaki da, baina hau zehaztu gabe dago.

#### 2. Lurralde historikoko mapa baten gainean, egun dauden harrobi desberdinen kokapena adieraztea, hauetariko bakoitzetik ateratzen den materiala zehaztuz.

#### 3. Institutuaren fatxada egiteko erabiliko den harri-mota zehaztea.

#### 4. Aukeratutako harriaren erauzketa-prozesuak harrobia kokatuta dagoen udalerrian izan ditzakeen ingurugiro-inplikazioak aztertzea, udalerrri hori kokatuta dagoen eskualdera ere zabalduz.

Institutuko fatxadaren plaka-ezarpenean erabili beharreko harria beste herri batetik inportatzeak ingurugiroaren ikuspuntutik izan ditzakeen ondorioei buruz eztabaidatzea.

Talde bakoitzari suposizio praktikoa eta EAEn dauden harrobien zerrenda eta harrobi bakoitzean erauzten den material-mota entregatuko zaio.

Talde bakoitzari bere lurraldeko mapa batean harrobi desberdinak kokatzea eskatuko zaio; hauetariko bakoitzean lortzen den harri-mota zehaztuz.

Talde guztiei beren lurraldeko harrobietan erauzten diren harri-mota guztien artean mota jakin bat aukeratu behar dutela adieraziko zaie, eta hau ezinezkoa bada, hurbilen dagoen lurralde historikoko harrobietan.

Talde bakoitzak, aukeratu duen harri-motaren arabera, harri horren erauzketa-prozesuak harrobia kokatuta dagoen udalerrian dituen ingurugiro-inplikazioak aztertuko ditu, udalerria kokatuta dagoen eskualdera ere zabalduz.

Atal honetan ere aztertuko dira: baliabideen agortzea, alternatiba gisa hondakinak erabiltzea, paisajearen degradazioa, agortuta dauden edo edozein arrazoiengatik beren ustiapena amaitu duten harrobiak errekuaratzeko posibilitatea.

Agortuta dauden harrobiak eraikuntzako hondakin geldoak isurtzeko leku gisa erabil daitezkeela adieraz daiteke, paisajearen errekuarazioa eta birsorkuntza burutuz.

5. Azkenik, ikasle-talde desberdinekin eztabaida bat egingo da, Institutuko fatxadaren plaka-ezarpenean erabili beharreko harria beste herri batetik inportatzeak ingurugiroaren ikuspuntutik izan ditzakeen ondorioei buruz.

## EBALUAZIOA

### JARDUERAK

- Materialen ingurugiro-inplikazioei buruzko eztabaida eta bateratze-lanean ikaslearen portaera behatzea.

### EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Ikaskideekin dagoen komunikazioa ona izatea eta jardueran zentratua egotea.
- Lanbide-jarduerak ingurugiroaren babesarekin erlazionatzeko gaitasuna izatea.

*a*

## 8. jarduera



|                                           |                                                                                                                           |                                                                                                                               |
|-------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IZENBURUA</b><br>Lehengaiak<br>erauzte | <br><b>KOKAPENA</b><br>Teoriako<br>gela | <b>KALKULATU DEN DENBORA</b><br>1 ordu<br> |
|-------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

### HELBURU OPERATIBOAK

- Eraikuntzarako erabiltzen diren materialen erauzketak dituen ingurugiro-inplikazioak ezagutu eta baloratzea.
- Eraikuntzarako erabiltzen diren materialen garraioek sortzen dituzten ingurugiro-inpaktuak ezagutu eta baloratzea.
- Baliabide materialak oker ustiatzetik erator daitezkeen ondorioak ezagutu eta baloratzea.

### GARAPENA

UDaren hasieran planteatutako suposizioarekin jarraituz, Institutu zaharraren eraispeneren ondoren eraikin berrian zein fatxada-mota erabiliko den aztertzen ari da. Harritzko material naturala erabiltzea erabaki da, baina hau zehaztu gabe dago.

ONDOKOA ESKATZEN DA:

- Lurralde historikoko mapa baten gainean, egun dauden harrobi desberdinen kokapena adieraztea, hauetariko bakoitzetik ateratzen den materiala zehaztuz.
- Institutuaren fatxada egiteko erabiliko den harri-mota zehaztea.
- Aukeratutako harriaren erauzketa-prozesuak harrobia kokatuta dagoen udalerrian izan ditzakeen ingurugiro-inplikazioak aztertzea, udalerri hori kokatuta dagoen eskualdera ere zabalduz.
- Institutuko fatxadaren plaka-ezarpenean erabili beharreko harria beste herri batetik inportatzeak ingurugiroaren ikuspuntutik izan ditzakeen ondorioei buruz eztabaidatzea.





## 8. jardueraren eranskina



### MEATZARITZAKO LEGERIAREN BILDUMA

#### MEATZARITZAREN ERREGIMENA

- 22/1973 Legea, uztailaren 21ekoa, Meatzei buruzkoa.
- Meatzaritzaren erregimenerako Erregelamendu Orokorra, abuztuaren 25eko 285/1978 Errege Dekretu bidez onetsia.
- 54/1980 Legea, azaroaren 5ekoa, Meatzei buruzko Legearen Aldaketari buruzkoa.
- 6/1977 Legea, urtarrilaren 4koa, Meatzaritzaren Sustapenari buruzkoa.
- 1167/1978 Errege Dekretua, maiatzaren 2koa, Meatzaritzaren Sustapenari buruzko urtarrilaren 4ko 6/1977 Legearen III. tituluaren II. kapitulua garatzen duena.
- 107/1995 Errege Dekretua, urtarrilaren 27koa, Meatzei buruzko Legearen A sekzioa eratzeko balorazio-irizpideak finkatzen dituen.

#### MEATZE-SEGURTASU- NERAKO ARAUDIA

- Meatze-segurtasunerako Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorra, apirilaren 2ko 863/1985 Errege Dekretu bidez onetsia.
- Meatze-segurtasunerako Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorren garapenerako Jarraibide Tekniko Osagarriak.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuen Erregelamendua onesten duena.
- 1389/1997 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, meatze-jardueretako langileen segurtasuna eta osasuna babestera bideratutako gutxieneko xedapenak onartzen dituen.

#### INGURUGIROARI BURUZKO LEGERIA

- 1302/1986 Errege Dekretu Legegilea, ekainaren 28koa, Ingurugiroaren gaineko Inpaktuaren Ebaluazioari buruzkoa.
- 1131/1988 Errege Dekretua, irailaren 30ekoa, Ingurugiroaren gaineko Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 EDLren exekuziorako erregelamendua onartzen duena.
- 2994/1982 Errege Dekretua, urriaren 15ekoa, meatze-jarduerak ukitutako naturgunearen lehengoratzeari buruzkoa.
- 1984ko azaroaren 20ko Agindua, meatze-jarduerak ukitutako naturgunearen lehengoratzeari buruzko 2994/1982 ED garatzen duena.
- 4/89 Legea, martxoaren 27koa, Naturguneen Kontserbazioari buruzkoa.
- 16/94 Legea, ekainaren 30ekoa, Naturaren Kontserbazioari buruzkoa.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN INDARREAN DAUDEN MEATZE-USTIATEGIAK

ARABAKO PROBINTZIA

| IZENA            | BALIABIDEA | UDALERRIA     | IZENA           | BALIABIDEA          | UDALERRIA |
|------------------|------------|---------------|-----------------|---------------------|-----------|
| Navarra Pequeña  | Kararria   | Langraitz Oka | Azkorriaga-Na   | Kararria            | Trasponte |
| Esther           | Kararria   | Laminoria     | Carmen y Teresa | Harkaitz Asfaltikoa | Atauri    |
| Roberto y Felisa | Igeltsua   | Padul         | Esther          | Hare Silizeoa       | Laminoria |
| Santutis         | Ofita      | Urizaharra    | Gardelegui      | Legarra             | Gardalegi |
| El Carrascal     | Legarra    | Assa          |                 |                     |           |

BIZKAIKO PROBINTZIA

| IZENA              | BALIABIDEA | UDALERRIA         | IZENA            | BALIABIDEA | UDALERRIA      |
|--------------------|------------|-------------------|------------------|------------|----------------|
| Aurrera            | Kuartzoa   | Leioa             | Azurreaka        | Kararria   | Lemoa          |
| Bilbao             | Burdina    | Urtuella          | Catalina y otras | Burdina    | Sopuerta       |
| Dima               | Marmola    | Dima              | Gaztetxe         | Marmola    | Markina-Xemein |
| Goriko             | Marga      | Arrigorriaga      | Jaime            | Marmola    | Markina-Xemein |
| Larrako            | Kararria   | Arrigorriaga      | N. Marquina      | Marmola    | Murelaga       |
| Rosario            | Kuartzoa   | Goizirika         | Rojo Bilbao      | Marmola    | G. de Aretaga  |
| T. los Santos      | Kuartzoa   | Getxo             | Ugartetxea       | Marmola    | Markina-Xemein |
| Atxarte            | Kararria   | Abadiño           | Andaroleta       | Kararria   | Abadiño        |
| Arlucibide         | Marmola    | Markina-Xemein    | Ariaza Orozko    | Kararria   | Orozko         |
| Arizmendi          | Kararria   | Markina-Xemein    | Atxa Txiki       | Kararria   | Abadiño        |
| Aveleta            | Harea      | Amorebieta        | Bediaga          | Harearria  | Durango        |
| Beco corta         | Harearria  | Bilbo             | Bidegane         | Harearria  | Durango        |
| El Peñascal        | Kararria   | Bilbo             | Ermular          | Kararria   | Bilbo          |
| Galdames II        | Kararria   | Galdames          | Izarza II        | Harearria  | Zornotza       |
| Lancha             | Kararria   | Abanto y Ciervana | La Cilla         | Kararria   | Sopuerta       |
| La Ralera          | Kararria   | Urtuella          | Lersundi         | Harearria  | Durango        |
| Markomin-Goika     | Kararria   | Mañaria           | Mena-Antzuntze   | Harearria  | Zornotza       |
| Monte-Murgia       | Marga      | Lemoa             | Muchate          | Kararria   | Mañaria        |
| Ofitas de Rigoitia | Ofita      | Errigoiti         | Olaxpe           | Marmola    | Markina-Xemein |
| Peña Forúa         | Kararria   | Forua             | Peña Lemona      | Kararria   | Lemoa          |
| Peña Nafarrondo    | Kararria   | Orozko            | Coto Primitiva   | Kararria   | Bilbo          |
| Upo                | Kararria   | Zaratamo          | Urko Alde        | Kararria   | Ermua          |
| Venta la Perra     | Kararria   | Karrantza         | Zalloventa       | Kararria   | Mañaria        |
| Zaratxuena         | Harearria  | Durango           | Zubi-Ondo        | Kararria   | Ereño          |

GIPUZKOAKO PROBINTZIA

| IZENA                            | BALIABIDEA         | UDALERRIA   | IZENA                            | BALIABIDEA          | UDALERRIA  |
|----------------------------------|--------------------|-------------|----------------------------------|---------------------|------------|
| Aizkoltzia                       | Kararria           | Elgoibar    | Antzieta ( Geldiarazita)         | Kararria            | Donostia   |
| Buenaventura ( Geldiaraz.)       | Kararria           | Astigarraga | Bulandegui                       | Ofita               | Aduna      |
| Campanzar                        | Kararria           | Arrasate    | Eskuzta                          | Kararria            | Azpeitia   |
| Extra-Aintza                     | Kararria           | Errezil     | Gomistegui                       | Kararria            | Oñati      |
| Jaizkibel                        | Silizea            | Hondarribia | Kobate                           | Kararria            | Arrasate   |
| Larregui                         | Ofita              | Urretxu     | Mai Luz Aundi                    | Silizea             | Hernani    |
| Osimbeltz                        | Kararria           | Zestoa      | Rofer                            | Kararria            | Errenteria |
| San Antón                        | Kararria           | Albiztur    | San José                         | Kararria            | Urrutia    |
| San Josepe                       | Kararria           | Arrasate    | Sarasti                          | Silizea             | Lezo       |
| Sasiola                          | Kararria           | Deba        | Sistiaga                         | Kararria            | Azpeitia   |
| Virgen de Arrate                 | Arbela             | Beasain     | Urkulu                           | Marmola             | Deba       |
| Amaya                            | Kaltzio karbonatoa | Altzo       | Arrobieta-Aramburu               | Marga               | Donostia   |
| Buruntza                         | Kararria           | Andoain     | Duquesa                          | Marmola             | Deba       |
| Troya                            | Zn-Pb              | Mutiloa     | San Ignacio                      | Apaindura-harkaitza | Irura      |
| Olatz (Buruntza Kontzentr.)      | Kararria           | Mutriku     | San Blas (Duquesa Kontzentr.)    | Marmola             | Mutriku    |
| Kaskardi (Amaya Kontzentr.)      | Kaltzio karbonatoa | Lizartza    | Urberuaga (Arrobieta Kontzentr.) | Marga               | Deba       |
| Usabiartza (Buruntza Kontzentr.) | Kararria           | Deba        | Golcibar (Urkulu Kontzentr.)     | Marmola             | Deba       |



## 9. jarduera



| IZENBURUA                 | KOKAPENA      | KALKULATU DEN DENBORA |
|---------------------------|---------------|-----------------------|
| Lehengaien transformazioa | Teoriako gela | 2 ordu                |

### HELBURU OPERATIBOAK

- Eraikuntzara destinatutako transformazio- eta fabrikazio-prozesuek sortzen dituzten ingurugiro-inpaktuak ezagutu eta baloratzea.
- Baliabide materialen ustiapen okerra eginez gero sor daitezkeen ondorioak ezagutu eta baloratzea.

### BALIABIDEAK

- ◆ Eranskina: Zementua fabrikatzen duten enpresen zerrenda, bakoitzak fabrikatzen duen zementu-mota eta non dagoen kokatuta adieraziz.
- ◆ Eranskina: Carlos Urcelay Gordobilek (Lemona Industrial, SAko Industri Ingeniaria) Bizkaiko Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren SAITEK aldizkarian idatzitako "Reciclado de escombros de demolición para la fabricación de cemento" artikulua.
- ◆ Eranskina: Julen Rekondok "El Correo" aldizkarian idatzitako "Reciclaje de escombros para fabricación de cemento" artikulua.

### METODOLOGIA

#### 1. LEHENGAIEN TRANSFORMAZIOARI BURUZKO SUPOSIZIO PRAKTIKOA.

Institutu berriaren eraikuntzarako, EAEn kokatuta dagoen enpresa bateko zementua erabiltzea pentsatu da.

EAEko mapa batean, bertan dauden zementu-fabrika desberdinen kokapena adieraztea, bakoitzaren aldamenean fabrikatzen dituzten zementu-motak ipiniz.

#### 2. Zementu-fabrikak kokatuta dagoen udalerrri eta eskualderako ekar ditzakeen ingurugiro-inplikazioak aztertzea.

Obra honetan erabiliko den zementua beste herrialde batetik ekartzeak ingurugiroaren ikuspuntutik izan ditzakeen ondorioak alderatzea.

#### 3. Taldeek zementua fabrikatzen duen enpresaren kokapenak udalerrientzat eta eskualdearentzat ingurugiroarekin ikuspuntutik ekar ditzakeen ondorioen azterketa bat egingo dute.

